EUSKO
LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO
VASCO

**PUBLICACIÓN DE LA SESIÓN PLENARIA CELEBRADA LOS DÍAS 15, 16 Y 17 DE OCTUBRE DE 1980**

La sesión plenaria se celebró en tres días, procediéndose a su publicación en tres tomos, uno por cada día.

TOMO I
Correspondiente al día 15 de octubre.

TOMO II
Correspondiente al día 16 de octubre.

TOMO III
Correspondiente al día 17 de octubre.

**1980KO UZTAILAREN 15AN, 16EAN ETA 17AN EGINDAKO BILKURAREN ARGITALPENA**

Osoko bilkura hiru egunetan egin zen, hori dela eta hiru aletan argitaratu da, egun bakoitzak berea.

I ALEA
Urriaren 15ari dagokiona.

II ALEA
Urriaren 16ari dagokiona.

III ALEA
Urriaren 17ari dagokiona.

# EUSKO LEGEBILTZARRA
## PARLAMENTO VASCO

Lehenengo Legegintza Aldia
2-1 Alea

I Legislatura
Número 2-1

# BILKURA-EGUNKARIA
# DIARIO DE SESIONES

***Pulsando sobre las líneas del índice accederá al texto completo.***

***Aurkibideko lerroetan sakatuz testu osoa eskuratuko duzu.***

1980garreneko Urriaren 15an Egindako Osoko Bilkura.
GASTEIZ

### AURKIBIDEA


- Jaurlaritzako Lehendakariaren hitzaldia................................ 1 orr.
- Geldialdia eta bilkurari birrekitzea.................................. 38 orr.
- Lertxundi eta Arostegi Jaunek eskuhartzen dute.- García Danborenea Jaunak azaldutako erari buruzko arazoa.- Jaurlaritzako Lehendakari, García Danborenea, Olaberri, Viana, Arostegi, Gebara eta lertxundi Jaunek eskuhartzeak.
- Geldialdia eta bilkurari birrekitzea.................................. 69 orr.
- Onaindia, Benegas eta Ansola Jaunek eskuhartzen dute.
- Bilkura gerorakotu egiten da... 107 orr.


Sesión Plenaria celebrada el 15 de Octubre de 1980.
VITORIA-GASTEIZ

### INDICE


- Programa del Gobierno.- Intervención del Lehendakari Garaikoetxea........................... pag. 1
- Se suspende y reanuda la sesión......................................... pag. 38
- Intervenciones de los Sres. Lertxundi y Arostegui.- Cuestión de orden del Sr. García Damborenea.- Intervención del Sr. Presidente del Gobierno y Sres. García Damborenea, Olaberri, Viana Santa Cruz, Arostegui, Guevara y Lertxundi.
- Se suspende y reanuda la sesión......................................... pag. 69
- Intervienen los Sres. Onaindia, Benegas y Ansola Larrañaga.
- Se suspende la sesión............. pag. 107


(Elegir tomo)

El Sr. **PRESIDENTE:** Gaurko ihardun-aldia hasten da, gai-zerrenda honekin: Jaurlaritzaren Egitasmoa Legebiltzarrari aurkeztea. Lehendakaritzaren Saloz, Taldeburu-Batzordeak, deiaren, gai-zerrendaren xede den Jaurlaritzaren egitamuari buruzko eztabaidaketa-bideak araupetzea erabakitzen du. Honako arau hauek izango dira horretarako. Lehenengoa: Jaurlaritzaren adierazpena, denbora-mugarik gabe. Bigarrena: Legebiltzartalde guztien lehenengo eskuhartze-txanda Legebiltzarreango ordezkaritzaren zenbatekoaren alderantzizko hurrenez-hurrenka; talde bakoitzaren eskuhartze - aldia 30 minutukoa izango da. Askotariko taldea izan ezik, Talde horretakoek zenbatekoaren heinean banatuko bait dute taldearentzako aldia. Hirugarrena: Jaurlaritzak egoki deritzan guztietan eskuhar dezake Legebiltzartaldeen eskuhartzeei erantzuteko. Legebiltzartalde guztiek eskuhartu ondoren, erantzungo balu, taldeok, bakoitzak 10 minutuko erantzute-txanda bat izango lukete. Jaurlaritza Legebiltzartalde bati, edo batzuei erantzuteko eskubideaz baliatuko balitz, taldeok, halaber, 10 minutuko erantzun-aldirako eskubidea izango lukete. Laugarrena: Eztabaidaketaren lehengo aldia bukatu ondoren, Legebiltzartaldeeri bigarren eskuhartze-txandari ekingo zaio, esandako hurrerez-hurrenka, eta bakoitzak 15 minutu dituela. Bostgarrena: Jaurlaritzak, egoki deritzan bakoitzean, erantzuteko eskubidearen jabe jarraituko du, talde guziek batera, edo taldeetatik edozeinek, Jaurlaritzaren eskuhartzearen arauera, bakoitzak 10 minututan erantzun diezaioketela. Seigarrena: Bigarren txanda ondoren, horren bukaeran, Lehendakariak bilkura moztu egingo du, Legebiltzartaldeek, egin ditzaketen erabaki-saloak idatziz aurkeztu ditzateneko hogeitahamar minutuko epe bat hasten dela. Eta, zazpigarrena: Bilkurari birrekin ondoren, eta eztabaidaketarik gabe, izandako erabaki-saloak bototara jarriko dira, Legebiltzar-Mahaiaren aurrean aurkeztutako hurrenez-hurren berarekin. Beraz, lehenengotik, hasten gera. Jaurlaritzak hitza du.

El Sr. **PRESIDENTE DEL GOBIERNO** (Garaikoetxea Urriza): Lehendakari Jauna, Ahaldun Jaun-Andreok: Urte honetan bertan joandako Apirilean, adierazi ahal izan nizkizuen zeintzuk izan behar zuten, nire iritzian, orduan sortzear zegoen Eusko Jaurlaritza honen ihardunaren egitamu-ildo nagusiak. Orduko adierazpen harek ez zuen egitamu baten eginkizun-zerrenda zehatza aletzen. Ezin zezakeen ere. Lehenik, ez zalako hura hortarako garaia. Eta gero, eta, batez ere, egitamu baten xehetasun horrek, Jaurlaritzaren Sail bakoitzerako arduradunak egin behar duen plangintza ba-

**LEHENDAKARI JAUNAK:** Se abre la sesión de hoy, con el siguiente Orden del día presentación al Parlamento del Programa del Gobierno.

La Junta de Portavoces, a propuesta de la Presidencia acuerda regular los debates referentes al Programa del Gobierno, objetivo del Orden del día de la convocatoria. Estas serán, pues, las normas para ello: Primero, intervención del Gobierno, sin límite de tiempo. Segundo, primer turno de intervención de todos los Grupos. El tiempo de intervención de cada Grupo, en orden inverso al número de representantes en el Parlamento, será de treinta minutos con excepción del Grupo Mixto, cuyos miembros se repartirán el turno del grupo de forma proporcional. Tercero, el Gobierno podrá intervenir cada vez que lo estime oportuno para responder a los Grupos. En caso de que el Gobierno hiciera uso del derecho a responder a uno o varios Grupos Parlamentarios, éstos tendrían, a su vez, derecho a un turno de diez minutos. Cuarto, finalizada esta primera parte del debate, se procederá a un segundo turno de intervenciones, en el orden mencionado y por espacio de quince minutos cada una. Quinto, el Gobierno, cada vez que lo estime oportuno seguirá teniendo derecho a responder, pudiendo hacerlo también todos los Grupos, a la vez o por separado, en base a la intervención del Gobierno y por un espacio de diez minutos cada uno. Sexto, al final de este segundo turno, el Presidente suspenderá la sesión durante treinta minutos para que los Grupos Parlamentarios presenten por escrito las Propuestas de Resolución que estimen oportunas. Y, séptimo, al reanudar la sesión, y sin debate, las Propuestas de Resolución presentadas se someterán a votación en el mismo orden en que se hayan presentado a la Mesa del Parlamento.

Así pues, empezamos por el primer punto. El Gobierno tiene la palabra.

**JAURLARITZAKO LEHENDAKARI JAUNAK** (Garaikoetxea Urriza): Señor Presidente, Señoras y Señores Diputados: Este mismo año, el pasado mes de abril, pude exponer a Uds. cuáles deberían ser, a mi juicio, las líneas generales del Programa de este Gobierno Vasco, que entonces estaba aún por crearse. Aquella presentación detallaba un programa de actuación concreto, un plan, y tampoco podía hacerlo. Primero, porque no era aquélla época adecuada para ello. Y, además y sobre todo, porque la creación de un plan debe fundamentarse en una planificación que debe realizar el responsable de cada Departamento

tean oinarritu behar duelako. Funtsean, ordea, mintzaldi harek, ondorengo eztabaida eta guzti, agertu zituen nere Jaurlaritzaren plangintzaren oinarrizko haztarnak. Eta, hori, gure Herriaren ordezkaritza bere gain duen Legebiltzarre honek Lehendakaritza nere esku uztearen ohorea egin zidanez aurretik.

Nere Jaurlaritza osatu ondoren, noski, bidezko zen bezala, gure egitekorik lehenetarikoa egitamu-ildo nagusi haiek desarrollatzea izan zen. Ekainerako prestatua genuen proiektu zabal bat. Proiektu horren zutabeak honoko hauek ziren: Estatutoaren zentzuzko interpretapen baten oinarritu, eta horregatik, bide-bilakaerak eman zezaizkigukeen ekintza-ahalbideak zabalbideak kontutan hartu.

Kontutan hartze hau, bi zentzu hauetan: zein konpetentzietaz baliatu ahal izango genuen, alde batetik. Eta zein momentutan administralgo zentralak gure esku utziko zituen, konpetentzi hoietaz baliztzeko, behar-beharrezko genituen tresna eta serbitzuak, besterik. Horrela jokatuaz egin, beste erremediorik ez zuen zerbait egiten genuen gure ustetan. Gure ihardunaren, gure ekintzaren plangintza eta prestakuntza egiten genuenaz bat, autonomia interpretatzen genuen, bai bere edukien norartekoetan, bai bere-aldiko bilakaeran. Horrela, Autonomiaren bilakaerak nondik izan behar zuen, gurekin itundu behar; Eta, ondorioz, gure egitamuaren posibilitateak baldintzatzen zituzten Gobernu Zentraleko Mahaikideei, zeintzuk ziren gure ikus-punduak agertu ahal genizkien.

Guzti hau honela, eta leialtasun eta errealismo minimoz jokatuz, Jaurlaritzaren egitamua ordukoz bere horretan gordetzea, eta Madrilgo Gobernuarekin izango ziren lehen-elkarrizketak emandako erresultaduen, eta elkarrizketa haietan izaten ziren adostasun haundi edo txikien; eta bereziki, konpetentziak jasotze-programaren arauera, ezinbesteko ziren aldaketak sartzen joatea erabaki genuen. Hori egin gabe, izan ere, egitamua, testigantzakeria eta borondatekeriaren ispilu izan zitekeela, eta ez besterik, iduritu zitzaigun.

Adibide batzuk jarriko dizkizuet: gure lehen-plangintza haretan, trafikoa zainduko zutenez gain, beste bostehun edo seirehun polizi programatzen genituen guk, 1.980ko urte honen azkenerako. Gaur, oraindik, guztiok dakizkigun arrazoiengatik, Segurtasun-

del Gobierno. Pero, en el fondo, aquella intervención, e incluso el posterior debate dio a conocer las características básicas de la planificación de mi Gobierno. Y, ello, antes de que este Parlamento, que tiene la representación de nuestro Pueblo, me hiciera el honor de poner la Presidencia en mis manos.

Tras formar mi Gobierno, nuestra primera actuación fue lógicamente desarrollar líneas generales de planificación. En junio, teníamos ya preparado un amplio Proyecto. Las bases del mismo eran las siguientes: estar fundamentado en una interpretación seria del Estatuto y, por consiguiente, tomar en consideración las posibilidades de expansión, de actuación que la aplicación de los medios nos pudiera permitir.

Esto, en dos sentidos. Por un lado, con qué competencias podríamos contar, y por otro, en qué momento dejaría en nuestras manos la Administración Central los mecios y servicios que nos eran imprescindibles para ejercer esas competencias. Estábamos haciendo algo que, en nuestra opinión, no podía ser de otra manera. Al tiempo que planificabamos y preparábamos la labor y actuación a desarrollar, interpretábamos la Autonomía, tanto en los límites de su contenido, como en su pleno desarrollo. De esa forma, resultaba indispensable negociar con nosotros el alcance del proceso autonómico; en consecuencia, pudimos presentar nuestros puntos de vista al Gobierno Central, que condicionaba las posibilidades de nuestro Programa.

Siendo ésto así y obrando con un mínimo de lealtad y realismo, decidimos mantener el Programa del Gobierno tal como entonces estaba, ir introduciendo las modificaciones imprescindibles en función de los resultados que se fueran obteniendo en las primeras conversaciones que se iban a celebrar con el Gobierno de Madrid, en función de la mayor o menor importancia de los acuerdos resultantes de aquéllas conversaciones, y, sobre todo, en función del programa de transferencias, aún pendiente. Nos pareció que, efectivamente, si no hacíamos eso, el Programa podría limitarse a ser el reflejo de algo estrictamente testimonial y voluntarista.

Voy a poner, Señorías, unos ejemplos. Nosotros, en aquel primer Programa, preveíamos, además de la Policía de Tráfico, otros quinientos o seiscientos policías para 1.980. Aún hoy, por razones que todos conocemos, sigue sin constituirse, incluso, la

Elkarte bera ere osatu gabea aurkitzen da. 1.980ko urte honen azken hiru hilabetekarian, Kontzertu-Ekonomikoaren legea indarrean izango zela espero genuen guk orduan. Gaur, 1.981garrenean haserarako ere egongo dan zalantza, zoritxarrez, egiten dugu. Beste adibide bat: gure proiektu harek, enpleuaren sailean ekintza sendo bat eramatea zuen bere asmoa, eta horretarako, lehen transferentzi multzoan bertan eskatu genituen hortarako ahalmenak. Gaur, oraindik, ikusten duguna zera da: enpreuaren sailean ez duela deusik ere eman nahi Espainiako Gobernuak, edo Espainiako Gobernuaren Ordezkariak, eta ez duela horretaz hitzegiten ere hasi nahi. Aski bidez huskeriazko ez diren adibide hauek, ekintza baten konpromisoa loturik uzteko dauden zailtasunetaz jabetzeko. Konpromiso hori ez bait dago Eusko Jaurlaritzaren esku hutsetan. Ezerezetik abiatzen den aro berri batek berarekin daraman zalantza izugarria da gurea. Ez da gure kasoa, lehendik martxan datorren eta, ekintzen ahalbideetan sendoturik aurkitzen den makineria batena. Guzti honetatik, bidegabekaritzat salatu behar ditut hemen egitamu bat izateko zuhurtasun-apur batez jokatuz, ikuspegi-minimo baten zi geundelarik, gure aurka oihukatu duten zenbaiten ahotsak.

Eta, batez ere, gogor salatu nahi dut hemen, beharrezko konpetentziak izan arrean, ez genuela gure egitamua agertu nahi esaka, gure jokaera okertu nahi izan dutenen jarrera. Gure asmo bakarra zera zen, berriro esango dut: Autonomiaren desarrolloaren egutegi eta edukien mugen ikuspegi oinarritu bat izan nahi genuen, botere zentralarekin lehen-harreman batzuk izan ondoren.

Gaur, nahiz eta ezabatu ezinezko mugatasunak tartean izan, joandako Ekainean baino zerbait gahiago dakigu. Ba dakigu 1.981ean herrilan-plangintza batzuk aurrera atera ahal izango ditugula, adibidez, irakaskuntzan egin ahal izango dugun zenbait gauza. Euskal telebistaren oinarriak botatzen hasiko garela. Ba dakigu, baita, beste zenbait sailetan egin ahal izango digutunaz hitzegiterakoan, zuhur hitzegin beharko dugula, eta ez goraipatu epe laburrean egin ahal izango ditugunak. Hitz batean esateko, gure Mahaikideek Autogobernuaren bilakaera baldintzatuz, nondik eta nora jotzen duten ikasi ahal izan dugu zertxobait, eta orain zuzenago hantzeman ditzakegu honek bere ikuspegian dituen epe motz eta erdirako,

misma Junta de Seguridad. Nosotros, entonces, esperábamos que la Ley del Concierto Económico entraría en vigor el último trimestre de este año 1.980. Hoy por desgracia, dudamos incluso de que entre en vigor a principios de 1.981. Otro ejemplo: aquel proyecto nuestro pretendía una actuación firme en el sector del empleo, y para eso pedimos las competencias correspondientes en el primer paquete de transferencias. Todavía hoy, seguimos viendo que el Gobierno español, o el representante del Gobierno español no quiere conceder absolutamente nada en este sector del empleo, y además no quiere mencionar siquiera ese tema. Creo que estos ejemplos, nada nimios, son suficientes para darnos una idea de las dificultades que existen para sellar un compromiso de actuación, ya que dicho compromiso no está únicamente en manos del Gobierno Vasco. La nuestra es una gran incertidumbre que lleva consigo una nueva época que parte de cero. Nuestro caso no es el de una maquinaria que ya estaba en marcha y que pueden fortalecer nuevas posibilidades de actuación. Por todo ello, tengo el deber de denunciar, por injustas, las voces que algunos han alzado contra nosotros mientras estábamos esperando y obrando con un poco de prudencia para poder elaborar un Programa con un mínimo de perspectivas.

Sobre todo quiero denunciar aquí duramente la posición de quienes han pretendido tergiversar nuestra actuación diciendo que nosotros no queríamos presentar nuestro Programa hasta no tener las necesarias competencias. Nuestra única intención, voy a decirlo una vez más, tras los primeros contactos con el poder central, consistía en querer estar en condiciones de tener una visión firme del calendario y contenido del desarrollo de la Autonomía.

Hoy, a pesar de las inevitables limitaciones, sabemos algo más que en el pasado mes de Junio. Sabemos que a lo largo de 1.981 podremos sacar adelante alguna planificación en obras públicas, por ejemplo, algunas cosas en enseñanza; empezaremos a poner las bases de la Televisión Vasca; sabemos también, al hablar de lo que vamos a poder hacer en algunos otros sectores, que tendremos que hablar con prudencia, y no ensalzar lo que vamos a poder hacer a corto plazo. En una palabra, hemos podido aprender algo sobre el proceder y los objetivos de nuestros interlocutores, que condicionan el desarrollo del autogobierno. Ahora nos podemos percatar con mayor precisión de sus puntos de vista so-

gure ahalbideak zeintzuk izango diren. Gure agintealdian zehar, dudarik ez, zehaztasun eta zuzenketak han eta hemen sartzen joan beharko dugu. Oraindik ere, lotuak jarraitzen duten korapiloak askatzen joan-hala, joango gara hori egiten.

Lehen esan dudanez, orain dela zenbait hilabete agertzen nizkizuen Jaurlaritza honen egitamu-ildo nagusiak. Gaur, zuen eskuetan dago, bestalde, Jaurlaritzaren egitamua jasotzen duen 256 orrialdeko argitalpena. Hau guztia kontutan harturik, ez zinduzteket aspertu nahi egitamua zuen aurrean ala-xehetuz, edo Gernikan esanak hemen errepikatuz. Hala eta guztiz, bidezko iduritzen zait gure ihardunaren lerro-gadariak eta helburuak zeintzuk diren laburki azpimarratzea. Lehenik, bainan eta, batez ere, demagoji orotik at ibiltzeko dudan asmoa argi eta garbi utzi nahi dut. Gure ahalbideen esparruan kokatzen diren ekintzetaz hitzegingo dut, beraz. Egitamu bati gorputza ematerakoan, eta batez ere, bizi ditugun zirkunstantzi politikoen giroan, errazegi gertatzen da demagojiaren eta proposapen utopikoen tentaldian erortzea. Alderantziz, ez du disdiratasun apurrik izaten, eta sarri, etsipenaren usaina dariola dirudi, ahalbideen koordenaden barruan, zintzoki eta etenik gabe egiten den lanak. Agintearen erresponsabilitatea edo erantzunkizuna ez duenarentzat batez ere, erraza da, iritsi behar omen lirakeen mugarriak edonun jartzea eta, agintean dagoenaren erantzunkizuna edozertan aipatzea.

Jakin, Jaurlaritza hau, Autonomiaren bilakaera prozesu pausakor eta zaila izango duenaz jabetua dagoela. Ba-dakigu zenbaitek azkarrago eta ez joatearen, eta exijenteago ez izatearen atakea egingo digula. Beste zenbaitek, berriz, herri honen gaitz guztiak sendatzeko agintea gure eskutan ditugunaren ideia faltsoa aldarrikatuko duela, eta efikazik eza gure bizkar bota nahiko duela. Ulertuak ez izan arren, edo borondate txarrez gure kontra aritu arren, ordea, gu ez gara demagojiaren edo etsipenaren sareetan eroriko, eta langintza berri ororen haseran ezinbesteko den lan ixil eta itzaltsuan murgilduko gara. Horrela arituko gara Euskal Nazioa eraikitze-lan haundi eta gogor honetan. Alderdi baten edo bestearen texituren gainetik, euskaldun guztien Jaurlaritza izan nahi duen honek, konbentzimendu eta sentimendu sakon hau du bere iturburuan. Eusko Nazioaren sentimendu sakon hau du bere iturburuan. Eusko Nazioaren sentimendu sakona, bere identitatea,

bre este Programa, a corto y medio plazo, de nuestras posibilidades. En el transcurso de nuestro mandato tendremos que ir introduciendo, sin duda, matices y rectificaciones aquí y allá; lo iremos haciendo a medida que vayamos soltando los nudos que aún continúan atados.

Como he dicho antes, hace unos meses presentaba a sus Señorías los líneas generales de este Programa de Gobierno. Por otra parte, tienen en sus manos el documento de doscientas cincuenta y seis páginas que comprende dicho programa. Teniendo en cuenta todo esto, no quiero cansar a sus Señorías detallando ante ustedes el Programa o repitiendo aquí lo dicho en Gernika. A pesar de ello, me parece justo subrayar brevemente cuáles son las líneas maestras y los objetivos de nuestra actuación. Sin embargo, antes de nada, quiero dejar sobre todo bien claro mi deseo de evitar toda demagogia, por lo tanto, hablaré de las actuaciones que se ciñen a nuestras posibilidades. Al dar cuerpo a un programa y, sobre todo, en las circunstancias políticas que vivimos, resulta demasiado fácil caer en la tentación de la demagogia y de las propuestas utópicas. Por el contrario, la labor realizada seria e ininterrumpible, teniendo en cuenta las posibilidades, no es brillante y muchas veces parece que rezuma desesperación. Es fácil para quien no tiene la responsabilidad de mandar y, sobre todo, de dar cuenta de ello, marcar un límite cualquiera a las cosas que, dicen, se debieran conseguir; y mencionar en cualquier circunstancia la responsabilidad de quien esté en el poder.

Sepan que este Gobierno es consciente de que el desarrollo autonómico será un proceso difícil y con baches. Sabemos que algunos nos reprocharán que no vayamos de prisa y no seamos más exigentes. Otros muchos, en cambio proclamarán la falsa idea de que los remedios para curar todos los males de este pueblo están en nuestra mano, y nos querrán achacar falta de eficacia. Aunque no seamos comprendidos, o aunque se nos ataque con mala voluntad, no caeremos, sin embargo, en las redes de la demagogia o de la desesperación y nos dedicaremos a la labor silenciosa y gris que es necesaria al comienzo de cualquier nuevo trabajo. Así actuaremos en esta grande y dura labor de construir la Nación Vasca. Por encima de tesituras de uno y otro partido, este Gobierno que quiere ser de todos los vascos tiene por principio este convencimiento y profundo sentimiento; y la decisión de trabajar en la protección y desarrollo del profundo sentimiento de la Na-

bere nortasuna, eta bere interes bereziak zaindu eta desarrollatzen lan egiteko erabakimena. Lan hau, gainentzeko herrialde guztiekin eta, oso bereziki, Espainiako herrialde guziekin elkartasunean agingo den lana izango delarik. Gizaharremanetan aurrerakuntza eta juztizigintzan eredu litzatekeen euskal gizarte bat eraikitzeko borondatea da gurea. Gure herriak damaigun ardura politiko nagusi honek, errealismoz beteriko behar heinean mailakaturik joango den politika egitera bultzatzen gaitu. Gure planteamenduek eta, gure jardunbideek ez dute inoiz gure herri honen iraupena, bere kultur-identitatea, eta bere zimentarri moral eta materialak arriskuan jarri litzakeen radikaltasunik edo itsukeriarik izango. Ez dugu inoiz politikaren zentzu etikoa ahantziko; ez gara, helburuak hauek direla eta, hoietara iristeko edozein bide justifikatzearen tentaldian eroriko. Ez dugu ahantziko gizakume konkretoa dela edozein ideia edo ekintza politikoaren ikusmuga bakarra, eta gizon konkretoak direla; beraientzat lortuko dugun gizarte-mota dela gure helburu nazionalistari zentzua damaion gauza bakarra. Gernikan esan nuen bezala, andra-gizon zehatzen, konkretuen errealitatea da, aberriaren ikuspegi esanzialista guztietatik urrun, gure arduraren ardatza, eta, andra-gizon hoien eguneroko problema dastakorrak izango dira Jaurlaritza honek zuzendu, askatu beharko dituenak. Zentzu honetan, nonahiko zokotan ikusi nahi gaituztelarik ere bizitzen, iritzi aprioristiko batez, gizarte zuzenago batera eramango duen edozein gizarte-aldakuntza errealista bultzatuko dugu ikuspegi aurrerakoi batetik. Demokrazia politiko formalarekin bat, eta inoiz ere opaldu gabe bera, demokrazi kulturalera eta ekomonikora daraman bidean jarriko gara.

Señor presidente, señoras y señores diputados, me hubiera gustado continuar esta intervención en euskera, pero llamaban mi atención sobre el hecho de que muchos de nuestros oyentes, incluídos los que nos siguen por radio, pueden tener dificultades evidentes para seguir el contenido de mi intervención. En atención a esta circunstancia, poniendo un claro ejemplo de las permanentes servidumbres que nuestro idioma debe normalmente soportar, permítanme que continue en castellano el resto de mi intervención o, por lo menos, gran parte de esta intervención.

Yo decía en Gernika que tres son los objetivos esenciales que este Gobierno debe perseguir durante su mandato: desarrollo estatutario, lucha contra la crisis económica y el paro, y pacificación de este País. Como tantas veces hemos indicado,

ción Vasca, su identidad, su personalidad, y sus intereses específicos, siendo éste un trabajo que se realizará con los demás pueblos. Nuestra voluntad es construir una sociedad vasca, modelo de progreso y justicia en las relaciones sociales. Esta responsabilidad política fundamental, que deposita en nosotros nuestro pueblo, nos lleva a realizar una política llena de realismo. Nuestros planteamientos y actuaciones no tendrán jamás la radicalidad o ceguera que pueden poner en peligro la supervivencia de nuestro pueblo, su identidad cultural, y sus piedras angulares, morales y materiales.

No olvidemos nunca el sentido ético de la política; no caeremos en la tentación de justificar cualquier medio con el fin de conseguir unos objetivos concretos. No olvidemos que el único objetivo de cualquier idea o actuación política es el hombre concreto, son los hombres concretos; y que lo único que dá sentido a nuestro objetivo nacionalista es el tipo de sociedad que vamos a conseguir para ellos. Como dije en Gernika, lejos de todo punto de vista esencialista de la patria, el eje de nuestra responsabilidad es la realidad de hombres y mujeres determinados, concretos; y serán los problemas diarios que tengan que soportar esos hombres y mujeres los que este Gobierno va a tener que solventar. En este sentido, aunque quieren vernos viviendo en cualquier rincón, promoveremos a priori, desde una perspectiva progresista, cualquier cambio social realista en aras a una sociedad más justa. De acuerdo con la democracia política formal, y sin sacrificarla jamás, nos encaminaremos hacia la democracia cultural y económica.

Lehendakari Jauna, Ahaldun Jaun-andreok: Nere mintzaldia euskaraz jarraitzen laket zitzaidekeen, bainan gure entzuletatik askok, irratiz entzuten ari diranak barne, nere mintzaldia jarraitzeko zailtasun nabarmena izan dezaketenaren oharra egiten zidaten. Gorabera hau kontutan hartuz, etengabeko menpekotasunak, gehienetan jasan behar dituena gure Herria izanik, adibide garbi bat jarriz, zilegi bekit nere mintaldi osoa edo mintzaldi honen zati haundi bat behintzat, gazteleraz jarraitzea.

Nik Gernikan, Jaurlaritza hau bere agin te-aldian hiru helburu nagusiri atxeki behar zaiela nion: estatutu-bilakaera, ekonomia-larrialdiaren eta langabeziaren aurkako borroka eta Herri hau bakeatzea. Hain bestetan esan dugunez, hurrenez-hurreneko

el orden de enumeración no significa jerarquizar su importancia, y la interdependencia de tales objetivos es total. El fracaso en la resolución de cualquiera de estos tres grandes temas de la vida vasca puede convertir en irresolubles los demás. La normalización de la convivencia condiciona en gran medida cualquier intento de relanzamiento económico, y el desarrollo autonómico y la propia estabilidad democrática pueden ser una utopía si la crisis progresa y el paro alcanza cotas determinadas.

Aunque alguien haya dicho en tono crítico que este Gobierno es casi sólo un gestor de transferencias, a nadie se oculta que en esta primera fase autonómica, por definición, ésta tiene que ser tarea esencial del Gobierno. El Estatuto es un instrumento abierto que permite una interpretación amplia del autogobierno; ahí reside, quizá, su principal virtud, pero también su principal problema. Existen competencias exclusivas, inequívocas, que, por figurar claramente expresadas en el Estatuto, son ya competencias de la comunidad autónoma, aunque requieran, para su efectividad práctica, la transferencia de los medios materiales y personales que permitan su ejercicio.

Pero existen otras competencias susceptibles de una interpretación más o menos extensiva, o compartidas, que requieren una intensa negociación o un inevitable desarrollo en el tiempo, por las propias dificultades técnicas que les rodean. Así, cuando se establece que una determinada competencia hay que ejercitarla "de acuerdo con la ordenación general de la economía" o "en el marco de lo que establezca una ley básica", queda clara la necesidad de una intensa negociación, de la misma forma que puede requerirla el artículo que habla de las policías, en el Estatuto, en el que se establece que todo lo relativo a la protección de personas y bienes y el orden público corresponderá al País Vasco, menos los servicios policiales de carácter extra o supracomunitario.

En los primeros casos, la negociación tiene que resolver el marco que limite razonablemente las competencias de la comunidad autónoma. En el segundo, además y sobre todo, es un problema de calendario realista el que debe preocuparnos a nosotros mismos. Pero siempre, insisto, el Gobierno se encuentra con la tarea excepcional de procurarse el ejercicio de sus propias competencias.

En este sentido, yo afirmé en Gernika

aipatzeak bere garrantzia mailakatzerik ez du esan nahi eta, helburu hoien elkarren arteko menpetasuna erabatekoa da. Euskal bizitzaren hiru gai hauetariko edozein erabakitzeango hutsegiteak, gainontzeak erabaki ezinak izatea dakarke. Elkarbizitzea bere onera ekartzeak, ekonomia berriz indartzeko edozein saio neurri haundi batetan baldintzapetzen du, eta autonomia-bilakaera eta demokrazia-iraunkortasun bera amets bat izan daiteke larrialdiak aurrera badihardu eta langabezia hainbesteko batera iristen bada.

Nahiz eta norbaitek, kritika doinuz, Jaurlaritza hau iza eskuraketakudeatzele bat besterik ez dela esan izan, lehen autonomia-pausu honetan, berez, hau Jaurlaritzaren eginbeharrik garrantzizkoen denik inori ez zaio ezkutatzen. Estatutoa, burujabetzaren ikuspegi zabal bat zelegi egiten duen bide ireki bat da eta, hortan datza bere kemenik garrantzitsuena, baina, baita bere arazorik haundiena ere. Estatutuan argi eta garbi azalduak daudelako, dagoeneko Euskal Autonomia Elkarteko Ahalmenak diren, ahalmen bakar eta duda-ezinekoak ba daude, nahiz eta bere benetako eginkortasunerako bere iharduera zelegi egiten duten pertsonazko eta gauzazko bideen eskuraketa eskatu.

Teknika-zailtasun berak direla eta itune-bidegite sakon bat edo denborango nahiteazko egiterapide bat eskatzen duten, ikuspegi zabalago edo hestuago baten beste hainbanatutako eta, gai diren beste ahalmen batzuk ere ba daude. Honela, ahalmen bat "ekonomiaren guztizko antolatzearen bidean" edo "oinarrizko lege batek ezartzen duenaren eramuan" egiteratu behar dela jartzen denean, itunebidegite sakon baten beharra argi gertatzen da. Era berean, ondasun eta pertsonen zaingoari eta Herribakeari buruzko dena, elkartetik kanpoko edo gaineko ertzain-zerbitzuak ez beste dena, Euskal Herriari dagokiokela jartzen duen Ertzain atalak ere aska dezakelarik.

Lehen kasuetan, itune-bidegiteak, Autonomia Elkartearen ahalmena arrazoi-bidez muga dezan eremua erabaki behar du. Bigarrenean, gainera eta batez ere, geu kezkatu behar gaituen benetazko gai-zerrendaren arazo bat da. Bainan beti, berriz diot, bere Jaurlaritza-ahalmena ariketa lortzeko egiakizun bereziarekin aurkitzen du bere burua.

Alde honetatik nik Gernikan, eta asko-

y he repetido con reiteración, que seremos absolutamente realistas estableciendo un plan gradual y flexible de asunción de competencias. Pero nuestro pragmatismo nunca nos llevará, en cambio, a comprometer o hipotecar para el futuro el alcance interpretativo de una determinada competencia.

Podremos admitir un calendario dilatado para el pleno desarrollo de los diversos cuerpos policiales autónomos que se ocupen de todo lo, llamémosle, "intracomunitario". Pero no declararemos definitivamente inasumible por la comunidad autónoma algo que no aparezca en el Estatuto reservado con exclusividad al Estado.

Esta es la razón por la que nuestras negociaciones, en la Comisión Mixta de Transferencias o en la de Conciertos, han sufrido paralizaciones considerables y quizas inevitables. Por citar el ejemplo de los Conciertos Económicos, el Gobierno es consciente de que el cálculo del cupo y su correspondiente ley requerirán cierto tiempo para su acuerdo, y que, entretanto, puede convenir establecer una fórmula transitoria que permita tener los Conciertos en vigor, y su ley convenida y formalizada.

Pero, de acuerdo con el artículo 41 del Estatuto, el Gobierno no puede renunciar, por ejemplo, a dos cuestiones básicas, en este tema concreto.

Primero, que las bases conceptuales del cupo recogidas en dicho artículo queden perfectamente establecidas en la ley de Conciertos. Es decir, que ésta señale con claridad, como dice el artículo 41 del Estatuto, que el cupo será una contribución a las cargas generales del Estado o, lo que es lo mismo, una recional y equitativa contrapartida a dichas cargas cuyo cálculo deberá realizarse sobre las páginas claras y transparentes del Presupuesto del Estado. Por supuesto, entre dichas cargas asumiremos las dotaciones para un fondo de solidaridad interterritorial. Pero lo que no podemos ni debemos permitir es que, por falta de un planteamiento claro y legalmente previsto, surja la confusión de la que -permítanme repetir el refrán- los vascos salgamos además de "cornudos, apaleados".

Cuando hoy contemplamos el plan de inversiones en los Presupuestos Generales del Estado, nos encontramos con que el País Vasco es el que recoge los índices más bajos, a notable distancia, en tales inversiones. Mientras nuestro territorio está con un índice "inversión prevista-renta regio-

tan errepikatu dut, zera esan nuen: Aginte-eskuraketazko mailakako eta egokigarri den egitamu bat ezarriz, gauzak direneantxe ikusiko ditugula. Baina, gure daitekenari heltzeak berriz, ez gaitu inoiz ere, aginte baten etorkizunerako ulertzemodua arriskuan jartzera edo murriztera eramango.

Elkartearen baitango guztia bere gain hartu dezaten autonomia-ertzaingo indarberezien, egiterapenerako aldia luzetzea onartu ahal izango dugu bainan, Estatutoan Erresumari bakarrik atxekita agertzen ez den zerbait ez dugu Autonomia-Elkarteak bere gain hartuezinekotzat aldarrikatu.

Hau da, gure itune-bideak egiteak, Eskuraketen Askotariko Taldean edo eta Kontziertuenean geldialdi nabarmenak eta agian halabeharrezkoak somatu dituztenaren arrazoia. Kontziertu eta berari dagokion Legeak bere erabakirako denbora bat beharko duela eta bitartean, Kontziertuak indarrean eta, hoiekiko Legea Hitzartuta eta arauzkotuta edukitzea zilegi egin dezan antolabide iragonkor bat ezartzea komenigarri daitekenaz, Jaurlaritzak jakin ba daki.

Baina, Estatutoaren 41garren Atala kontutan hartuz, Gobernuak ezin ditu,adibidezgai zehatz honetan, oinarrizko bi arazo albatera utzi.

Aipatutako atalean bildutako kupoaren irizpidezko oinarriak, Kontziertuen legean guztiz ongi ezarriak geratzea. Hots, honek, Estatutoaren 41garren atalak dion bezala , argi eta garbi zera zehaztea: Kupoa, Erresumaren osoko xahupenekiko laguntza bat, edo berdina dena, bere hainbaketa, Erresumaren diru-egitasmoaren orrialde argi eta garbietan egin beharko den Xahupenekiko arrazoizko eta berdintasunezko ordain bat, izango dela. Xahupen hoien artean, lurralde-arteko alkartasunezko dirubatentzako diru-izendapenak gure gain hartuko ditugu, noski. Baina, onartu ezin eta behar ez duguna zera da: legez ohartemandako eta garbia den ikuskera bategatik, zilegi bekit esaera errepikatzea, euskaldunak "izorratuak ateratzeaz gainera jipoituak" aterako garen nahaste bat sortzea.

Honela, gaur egun Erresumaren guztizko diru-egitasmoetango diru-ezarketa egitamua dakusagunean, Euskal Herriak, diru-ezarketa hoietan, bitarte nabarmenez, kopuru txikienak hartzen dituenaz ohartzen gara. Gure lurraldearen, herrialdeko ohartemate-irabazpidezko diruezarketa-kopurua %

nal" del 36 por ciento, varias regiones rondan y superan el 200 por ciento. Y si la ratio empleada es la inversión por población, mientras nosotros estamos en 46 (48, en 1.980), Madrid está este año con una ratio de 195. Sin embargo, si alguien sufre de continuo las acusaciones tópicas de insolidaridad, discriminación, deseos de privilegio, etcétera, en Euskadi. Así pues, deseamos cuentas claras con el Estado sin reglamentar solidaridades, pero dejando a la vista de todos qué aporta la comunidad autónoma y a qué contribuye con su aportación. Este es un principio, el alcance de una interpretación estatutaria, en el que por ejemplo jamás podremos cejar.

Siguiendo con el caso del Concierto, el Gobierno Vasco no puede renunciar a su capacidad, establecida en el artículo 41 del Estatuto, para "mantener, establecer y rebular el régimen tributario", eso sí, "atendiendo a la estructura general impositiva del Estado, y a la coordinación, armonización fiscal y colaboración que se establezca en el propio Concierto". Es decir, el Gobierno vasco no puede renunciar a una mínima capacidad normativa que no distorsione ostensiblemente el sistema general del Estado. Por ello, la actitud de los representantes de la Administración central, que ofrecen -hasta el momento el menos- posturas totalmente regresivas respecto del propio Concierto alavés, no ha podido ser juzgada como una actitud auténticamente seria.

Si me he detenido en el ejemplo de los Conciertos no ha sido por casualidad. Es, además de un ejemplo fundamental por su importancia, ilustrativo por las facetas técnicas y políticas que a veces dificultan esa tremenda labor de poner en práctica el Estatuto, de acuerdo con nuestros interlocutores de Madrid. Y, digan lo que digan quienes fustigan al Gobierno vasco diciendo que no gobierna, pretendiendo dar la imagen de que tenemos en nuestras manos los resortes de poder normales de un Gobierno, lo cierto es que tenemos que dedicarnos, fundamentalmente y antes de nada, a procurarnos tales resortes, y quienes así hablan confunden y engañan a nuestro pueblo, por afán, quizá a veces puramente partidista, de desacreditarnos.

Yo confío en que nuestros avances, en este aspecto, serán mucho más rápidos que los que se produjeros, pongo por ejemplo, en los seis años de autonomía catalana del período republicano. Pero bueno es que algunos repasen la historia para ver las cosas con realismo, y se acostumbren a en

36 den bitartean, beste zenbait herrialde %200-en gertu edo gorago dabil. Eta erabilitako neurritza-heina, Diru-ezarketa eta biztanlegoaren artekoa baldin bada, gu 46an baldin bagaude (1.980an 48), aurten Madrilek 195eko kopurua jotzen du. Hala ere, elkartasunezazko, baztertzezko, lehentasunezko eta abar ohizko salaketak norbaitek jasatekotan, Euskadik jasoten ditu hain zuzen. Hala beraz, Erresumarekin kontu garbiak nahi ditugu, elkartasunik eztabaidatu gabe baina. Autonomia Elkarteak zer ematen duen eta zeri laguntzen dion bere ematearekin denen begiaurrean utzirik. Hau sortarau bat, esate baterako inoiz atzera egiterik ukango ez dugun Estatutoaren ikusmolde baten garrantzia da.

Kontziertuaren arazoari jarraiki, Eusko Jaurlaritzak Estatutoaren 41garren atalean dagoen ahalmena ezin bazter dezake: "Zerga-araupidea eutsi, ezarri eta neurtzeko", Erresumaren ezarketazko guztizko egitura eta Kontziertuan bertan ezarri daitezen elkarketa, zerga-egokitze eta laguntza kontutan harturik" noski. Hots, Eusko Jaurlaritzak, Erresumaren guztizko antolapena artiro bihurrikatu ez dezan gutxienezko lege-ahalmen bat ezin bazter dezake. Horregatik, Arabaren kontziertu berari buruz orain arte behintzat, guztiz atzerakoi diren jarrerak eskaintzen dituzten Erresuma-Arduralaritzako ordezkarien jokaera ez da guztiz zentzuzko jokabide bezala izan.

Kontziertuen adibidean luzatu baldin banaiz ez da ustegabe izan. Bere garrantziagatik oinarrizko adibide bat izatez gainera, Madrilgo gure solaskideen bidez, Estatutoa indarrean jartzeko lan itzel hori zenbaitetan zailtzen duten politikazko eta teknikazko aldeegatik argigarria ere ba da. Eta esanak esan, Eusko Jaurlaritzak jaurtze-lanik ez duela egiten eta maisiatzen dutenek, Jaurlaritza bati dagozkion aginte-ahalmenak eskutan ditugula sinestarazi nahiz, gu beheratu nahiean alderdikeria asmoz gure herria nahastu eta honi iruzur egiten ari dira; egia hauxe: Funtsean, eta ezertan hasi baino lehen, agintepide hoiek eskuratzen saiatu behar dugula.

Gure aurrerapenak, Errepublika-aldeko Katalunyaren Autonomiakiko sei urtetan adibidez bezala jartzen dut, alde honetan gertatu ziren aurrerapenak baino askoz ere azkarragoak izango direneko uste osoa daukat. Bainan komeni da zenbaitek Historia birrikustea gauzak direneantxe ikusteko eta,

tender el papel incómodo y poco gratificante de un Gobierno que tiene que dedicar buena parte de su atención y enrgía a gestionar transferencias, procurando avanzar sin cometer errores, ni incurrir en lo que podrían calificarse como claudicaciones.

Las bases del planteamiento de las transferencias por parte del Gobierno vasco han sido las siguientes (y sigo en ese primer capítulo del desarrollo estatutario, que es sistematizado como uno de los tres grandes objetivos o labores de este Gobierno): Primero, como ya explicara en su día, la comisión mixta no adjudica competencias. Estas pertenecen a la comunidad autónoma en virtud del Estatuto. La comisión gestiona la transferencia de medios materiales y personales que hagan posible el ejercicio de la competencia, y deslinda, en su caso, las que sean compartidas.

Como consecuencia, ninguna transferencia solicitada por el Gobierno en virtud de lo dispuesto en el Estatuto debiera ser demorada por el Gobierno central, a no ser que éste demostrara -corriendo a nuestro entender con la carga de la prueba- la clara improcedencia estatutaria o constitucional de lo solicitado, o la evidente inviabilidad técnica del plan que se presenta.

La comisión mixta recibió el plan de prioridades del Gobierno vasco al objeto de ordenar sus trabajos y de responder a las materias más importantes o urgentes desde nuestra perspectiva. En estas prioridades, como ustedes ya saben o recordarán, estaban los Conciertos Económicos, le Enseñanza, el tema policial, los medios de comunicación social, radio y televisión en particular, las facultades relativas a las relaciones laborales previstas en el Estatuto y el importane capítulo de Sanidad y Seguridad Social.

No voy a recordar de nuevo, para no extenderme más de lo que desgraciadamente voy a tener que extenderme, las razones -patentes para todos- de estas prioridades.

Hasta la fecha, y voy a hacer un pequeño repaso del <u>statu quo</u> actual del proceso de transferencias, la comunidad autónoma a través de los representantes de la Comisión Mixta, ha logrado que se materialicen transferencias en las áreas que se citan a continuación, donde quedan igualmente indicadas las perspectivas de traspasos ulteriores, más o menos inmediatos.

En Educación, el primer paquete de

hutsik egin gabe, eta utzikeriarik gabe aurreratzen saiatuz eskuraketak bideratzeko bere adiera, eta indarraren zati handi bat eman behar duen Jaurlaritza baten eginbehar nekagarria eta ordainik gabekoa ulertzera ohitzeko.

Eusko Jaurlaritzaren eskuraketekiko azalpenaren oinarriak honako hauek izan dira, (eta Jaurlaritza honen hiru helburu nagusi bezala antolatutako estatu-bilakaeraren lehen atalburu luze horri narraio): Lehenengo, bere egunean argitu nuenez, Askotariko Taldeak ez du aginterik ematen. Hauek dagoeneko Autonomia-Elkarteari dagozkio Estatutua dela bide. Lantaldeak,agintearen erabilketa ahalezko egin dezaten gauzazko eta pertsonazko bideen eskuraketa bideratzen du eta, bere kasuan, erkidetuak direnak mugatzen.

Ondorioz, Estatutuan dagoenari jarraituz, Jaurlaritzak eskatutako ezein eskuraketa ez luke, edo ez du Erresuma Jaurlaritzak luzatu behar: honek frogaren zama bere gain hartuz, eskatutakoaren Estatutu edo Konstituzio-ezegakitasun garbia edo aurkezten den egitamuaren teknika-ezin garbia frogatuko ez balu behintzat.

Askotariko Taldeak Eusko Jaurlaritzaren lehengotasun egitamua jaso zuen bere lanak moldatzeko eta gure ikuspegitikako gai garrantzitsuenei edo presazkoenei erantzuteko. Lehengotasun hauetan, dakizuenez edo oroituko zaretenez, kontziertu ekonomikoak, Irakaskuntza, Ertzaingo-gaia, gizarte adierazpideak, irratia eta telebista batipat, estatutan aintzin-ohartemandako lan-hartuemanei buruzko ahalmenak, eta Osasun eta Gizarte-Segurantzaren atalburu garrantzitsua seuden.

Zoritxarrez luzatuko naizena baino gehiago ez luzatzeko, lehengotasun hauen, guztiontzan nabari diren arrazoiak ez ditut berriro oroitaraziko.

Egun arte, Autonomia Elkarteak, eta eskuraketen etorpidearen oraingo egoeraren birikuste txiki bat egitera noa, Askotariko Taldeko ordezkarien bidez, ondoren aipatzen diren gai-alorretan eskuraketak gauzatzea lortu du, eta era berean, bizkorrago nahiz beranduago egingo diren hurrengo eskuraketenikuspegiak bilduko dira.

Hezkuntza-mailan eutonomia Elkartea-

transferencia ha supuesto para la comunidad autónoma, primero, la posibilidad de ordenación de todo el sistema educativo público hasta el nivel de COU. La transferencia incluye aspectos como la titularidad o, en su caso, dependencia de los centros docentes, la inspección técnica y la elaboración y aprobación de las previsiones de necesidades de personal.

Segundo, todos los aspectos relativos a la enseñanza reglada de los centros estatales y no estatales de formación profesional, así como a su régimen jurídico, administrativo y económico.

Tercero, el control del proceso de euskaldunización en la escuela. Paralelamente se negoció, aprobó y firmó el convenio de ikastolas.

La segunda fase de negociaciones se iniciará la semana próxima, con la finalidad de agotar todo el proceso de transferencias. Estas negociaciones implican: la transferencia de todos los servicios referentes a centros privados y demás centros no transferidos; la elaboración y aprobación de planes de estudio y libros de texto; la transferencia de las titularidades de los edificios de las Delegaciones y órganos adscritos, como culminación del proceso de asunción de todas las competencias, y la transferencia de todos los servicios de educación existentes en cualquier Ministerio.

En lo que concierne a Universidades, se ha acordado y aprobado la transferencia de todas las titularidades y derechos correspondientes al Estado en los Laboratorios de Ensayos y Investigaciones Industriales "Leandro José Torróntegui".

La transferencia de Universidades se ha aplazado hasta la aprobación de la Ley de Autonomía Universitaria, De todos modos, si la aprobación de la ley se retrasara por un período superior a seis meses, se entrará en la negociación de la transferencia.

En Cultura, salvo algunos aspectos menores aún no resueltos, se han transferido todos los medios personales y materiales, y servicios, incluídas las delegaciones y los edificios en que se encuentran.

Hemos de hacer constar que si el equipamiento administrativo es aceptable, no resulta lo mismo con los equipamientos sociales, lo que exigirá un esfuerzo presupuestario. Así, por ejemplo, Guipúzcoa y Vizcaya carecen de bibliotecas estatales; en todo Euskadi sólo existe un albergue juvenil,

rentzat, eskuraketen lehen multzoak zera ekarri du: 1. Herri-Hezkuntza bide guztia, COU mailaraino antolatzeko aukera. Eskuraketak honako hauek bezalako aldeak barne-hartzen ditu: jabegoa, edo hala baledi. Irakastetxeen atxikitasuna, teknika-ikerraldia eta lanarigoaren beharren aintzin-ohartemateen eraketa eta oanrtzea.

2. Erresumako eta lanbide-gaitzezko erresumaz besteko araututako irakaskuntzei eta baita bere legezko, ardularitzazko eta ekonomiazko legebideari buruz ere.

3. Ikastetxeango euskalduntze bilakaeraren zaingoa. Aldei berean, ikastolen hitzarmenaren itunebideak egin, onartu eta izenpetu ziren Eskuraketen bilakaera guztia amaitzeko asmoz.

Itune bideak egitearen bigarren ekinaldia datorren astean hasido da. Itunebide hauek egiteak zera dakar berekin: Norbanako jabetzepeko Ikastetxeei eta gainontzeko eskuratu gabeko ikastetxeei buruzko zerbitzuak eskuratzea. Ikasketa eta ikasteliburu egitamuen eratze eta onartzea. Aginte guztien eskuraketa-bilakaeraren amaitze bezala, ordezkaritzen eta atxikitako erakundeen eraikintzen jabegoak eskuratzea, eta edozein Ministeritzako hezkuntza-zerbitzuak eskuratzea.

Unibertsitateei dagokienez, "León José de Torrontegui" Industria-Saio eta Ikerlanezko Saiaketategietango Erresumari dagozkion jabego eta eskubide guztien eskuraketa erabaki eta onartu du.

Unibersitateen eskuraketa LAU onartu arte atzeratu da. Dena dela, legea onartzeak sei hilabete baino gehiago joko balu, eskuraketaren itune bideak egiteari ekingo zaio.

Kulturan, oraindik erabaki gabeko zenbait aldez beste, kokatuta daudeneko Ordezkaritza eta eraikintzak barne, gauzazko eta pertsonazko baliapide eta zerbitzu guztiak eskuratu dira.

Zera utzi behar dugu argo: arduralaritza-erakundetza onartze modukoa bada ere gizarte erakundetzekin ez dela berdina gertatzen, eta honek diru egitasmozko-ahalegin berezi bat eskatuko du. Honela, adibidez, Gipuzkoak eta ez Bizkaiak ez dute erresuma-liburutegirik. Euskadi osoan gazte-

el de Fuenterrabía, y sólo hay cuatro instalaciones deportivas con titularidad estatal, en Eibar, Bidebieta, Portugalete y Lujua. Quedan además, como temas pendientes la negociación de la biblioteca estatal de Vitoria, que permita insertarla en la política del libro que se siga en Euskadi; archivos históricos, particularmente el de Oñate; la negociación de la parte proporcional de los ingresos de "quinielas" y el fondo de protección a la cinematografía.

En materia de Televisión, se ha firmado un convenio que incluye la emisión de veinte horas de programación específica para Euskadi, a partir del cuarto trimestre de 1.980, con aumentos progresivos de tal espacio y programas informativos en euskera, así como el compromiso del Gobierno español para la instalación de un canal de televisión, propio de la comunidad autónoma, en 1.982 y la gestión de frecuencias para otros canales.

El Sr. **LERTXUNDI BARAÑANO**: La abstención que he tenido ocasión de manifestar hace un momento responde al hecho de que este tema se ha discutido en la Cámara recientemente con mucha más profundidad que lo que hemos discutido en este momento del Pleno, que ha abordado globalmente los problemas cuando aquí los temas siguen siendo enormemente parciales. No se trata hoy de hablar en general de los mecanismos; tenemos ahí la exigencia de la constitución de la Junta de Seguridad, la Policía Autónoma... No se trata de que el Gobierno instrumente mecanismos. ¿Qué pasa con el propio Parlamento, con el pueblo, con la movilización, etcétera? Creo que manifiesta las cosas de manera enormemente parcial, incluso mucho peor de lo que la propia Cámara ha realizado anteriormente. Y ya ha tomado posición neta y expresa sobre esta cuestión.

El Sr. **PRESIDENTE**: El señor Aróstegui tiene la palabra.

El Sr. **AROSTEGUI ZUBIAURRE**: Mi Grupo ha votado afirmativamente... Perdón, mi partido ha votado afirmativamente esta propuesta de resolución, en primer lugar, porque señala la violencia como uno de los primeros o el primer problema de nuestro País; y esto entendemos que es importante y así lo hemos dicho claramente. En segundo lugar, porque exige o recaba del Gobierno una actuación decidida para terminar con el problema de la violencia. En

"Gasteizen, 1980garreneko Urriak 17.

"Taldeburuak. Izenpea, Jesus María "de Viana Santa Cruz"

**LEHENDAKARI** Jaunak: Idazkia irakurriz gero, bera bototara jartzea dagoki. (Isilunea.)

Boto-emanketa egin ondoren, honako hau izan zen ondorioa: emandako botoak, 45; aldekoak, 31; aurkakoak, sei; botorik eman gabeak, zortzi.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Erabakitze-salo hau, beraz, onartuta gelditzen da. Boto-adierazpenen txanda dagoki. Beraz baliatu nahi luketen Taldeak, arren. (Isilunea.)

Lertxundi jauna da hizpidearen jabe.

**LERTXUNDI BARAÑANO** Jaunak: Lehentxeago adierazteko aukera izan dudan botorik ez emateak, gai hau Bilkuran, Osoko Bilkurako une honetan eztabaidatu dugun baino askoz sakonago eztabaidatu-berri denari erantzuten dio, gaiek hemen hain zatikakoak izaten jarraitzen dutenarren, Osoko Bilkura honek arazoei baten heldu bait die. Gaur gauza ez da baliapideei buruz hitz egitea; Segurantza-Batzordeaz, Ertzain Autonomiadunaz... Konstituzioaren agindua hor dugu. Gauza ez da Jaurlaritzak baliapideak gaitzea. Legebiltzarrarekin berarekin, herriarekin, herri-ekintzarekin, etabarrekin, zer gertatzen da? Gauzak oso zatika agertzen dituela deritzat, Legebiltzarrak berak lehenago egin zuen baino ere askoz okerrago. Eta arazo honi buruz berarizko jarrera zehatza hartua dauka.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Arostegi jauna da hizpidearen jabe.

**AROSTEGI ZUBIAURRE** Jaunak: Nere Taldeak baiezko botoa eman du... Barkatu, nere alderdiak erabakitze-salo honi baiezkoa eman dio, lehenengo, indarkeria gure Herriango lehenengotako edo lehenengo arazo dela dioelako; eta honi garrantzizko deritzagu, eta argi eta garbi hori esan dugu. Bigarren, indarkeria-arazoa ezabatzeko Jaurlaritzari ekintza ausarta eskatzen dioelako. Hirugarren, garbi dagoenez, gure irizpideekin bat datorrelako.

tercer lugar, porque evidentemente, coincide con nuestros planteamientos.

Y hemos votado que sí, aunque después de la enmienda de aproximación parece que faltaba algo, que era citar la utilización, en tanto no se consigan los medios por el Gobierno vasco para esta actuación, citar la adecuada utilización de las fuerzas de seguridad del Estado que tiene a su disposición.

El Sr. **PRESIDENTE:** Tiene la palabra el representante de Centristas Vascos. (Pausa.)

Señor Viana, ¿ha pedido la palabra usted? (Negativa.)

Me ha parecido entender que ha levantado el brazo. Tiene la palabra el representante de Socialistas Vascos.

El Sr. **GARCIA DAMBORENEA:** Presidente, Señorías, la propuesta de resolución que se acaba de votar, evidentemente, contiene hermosas palabras -fundamentalmente la de pacificación-, sin embargo, mi grupo se ha abstenido, y ya podemos anunciar que, puesto que hemos presentado nuestra propia resolución y entendemos que es la que más coherentemente con nuestros planteamientos aborda el problema que hoy nos ocupa, que es el programa del Gobierno, anunciamos ya que nuestra abstención va a ser casi la regla en estas ocasiones, salvo, naturalmente, nuestra propia resolución.

Bueno, nosotros estamos cansados de proclamar la necesidad de la pacificación en este País, de intentar aunar toda clase de fuerzas sociales y políticas en pro de la pacificación en este País. Estamos cansados también de hacerlo en solitario y estamos cansados de predicar en el desierto. Por eso, para nosotros, éste era un tema puntual del debate que el Gobierno no ha querido celebrar en esta Cámara en relación con su programa de gobierno. Este era un tema puntual del debate que el Gobierno, muy hábilmente, ha tratado de eludir hasta conseguirlo finalmente conforme terminaba la tarde.

Nosotros nos hemos abstenido en relación con el tema porque no nos conformamos con el planteamiento que aquí se nos ofrece, que eso es lo que queríamos haber debatido con el señor Garaikoetxea y con el señor Retolaza. No nos conformamos con este planteamiento, queremos más. Y

Eta, hurbiltzezko zuzenketa-eske ondoren, ekintza honetarako Jaurlaritzak baliapiderik lortzen ez duen bitartean, bere esku dauzkan Erresumako segurantza-indarrez behar den arduraz baliatuko dela ez aipatzearen hutsunea zegoela zirudienarren, guk baiezko botoa eman dugu.

**LEHENDAKARI** jaunak: "Centristas Vascos"en ordezkaria da hizpidearen jabe (Isilunea.)
Viana jauna, zuk hitza eskatu al duzu? (Ezezkoa.)

Besoa altxa duzula iruditu zait. Euskal Sozialisten ordezkaria da hizpidearen jabe.

**GARZIA DANBORENEA** Jaunak: Lehendakaria, Jaun-andreak, garbi dagoenez, bototara jarri berri den erabakitze-saloan hitz ederrak daude-bakeatze hitza batipat-, hala ere, nere Taldeak ez du botorik eman eta, geure erabakia aurkeztu dugunez eta gaur eskuartean darabilgun Jaurlaritzaren egitaraua den arazoari gure irizpideekin barne-egokitasun gehienez heltzen dioena erabaki hori dela iruditzen zaigulako zera adierazi dezakegu eta adierazten dugu: geure erabakiarekiko botoa salbu, boto-emate hauetan gure ia erabateko joera botorik ez ematezkoa izango dela, alegia.

Beno, Herri honetango bakeatu beharra aldarrikatzen, Herri honetan bakeatzearen alde gizarte eta politika-indar guztiak batu nahi izaten aspertuta gaude. Bakarka iharduten ere aspertuta gaude eta basamortuan oihuka iharduten aspertuta gaude. Horregatik, hori eztabaidaketako gai soilari zegokion, baina Jaurlaritzak, bere Jaurtze-egitarauarekin batean, Legebiltzar honetan ez dio heldu nahi izan. Hori eztabaidaketako gai soil bati zegokion, baina Jaurlaritza, nolako artez gainera, alde batera uzten saiatu da, arratsaldea bukatzen zihoan bezala, azkenean berea lortu duen arte.

Guk gai horri buruz ez dugu botorik eman, hemen eskeintzen zaigun irizpidea ez zaigulako aski hori, Garaikoetxea jaunarekin eta Retolaza jaunarekin eztabaidatzea bait zen gure xede. Aurkezpen hori ez zaigu aski, gehiago nahi dugu. Eta gainera, azkenengo zuzenketa, Eusko Jaurlaritzak indar-

además no aceptamos la última corrección, la enmienda que acaba de proponer el Grupo de Centristas Vascos en el sentido de que respaldemos al Gobierno vasco en las iniciativas que hasta el momento ha tomado, o que previsiblemente vaya a tomar a corto plazo, en relación con el tema del terrorismo. Porque ése es un tema en el que este Gobierno carece, para nosotros, absolutamente de credibilidad y porque es un Gobierno con cuya política en el tema de orden público y en el tema del terrorismo no estamos de acuerdo.No queremos más declaraciones en relación con el terrorismo, no queremos más buenas intenciones en relación con el terrorismo. Ya sabemos que eso es lo que quiere el Partido Nacionalista Vasco; por eso ha respaldado la propuesta. Y vemos que, por lo visto, eso le satisface a la Unión de Centro Democrático. A nosotros no nos satisface. A los Socialistas Vascos no nos satisface, a los Socialistas Vascos no nos parece suficiente. Y si hoy se hubiera celebrado el debate, los Socialistas Vascos le hubiéramos exigido al partido que está en el Gobierno y a los miembros del Gobierno mucho más que eso, porque ya no estamos ni en 1978 ni en 1979, estamos ya terminando 1980. Y en 1980, a un Gobierno de este pueblo hay que exigirle muchas más cosas en el tema de la pacificación y en el tema del terrorismo. Y eso es lo que nosotros queríamos traer hoy a esta Cámara y eso es lo que el Gobierno ha eludido, repito, con éxito.

Nosotros queríamos por parte de este Gobierno compromisos concretos, que se deje de hablar de posibilidades de negociación, de reconciliación; que defina claramente cuál es su política, cuáles son sus intenciones en este campo y que les ponga fechas. Que nos diga: "Voy a estar negociando tres semanas, quince días, dos años", que diga algo. Hasta ahora no hace más que moverse en una perpetua ambigüedad. Queremos un compromiso,una orientación. Queríamos; han sabido eludir el debate. Y queríamos más cosas también.Queremos que nos diga, después qué va a hacer, cuándo va a empezar esa lucha abierta, con qué medios. Que no nos siga hablando de "con todos los medios del Gobierno" "con todos los medios que estén a su alcance". Queremos saber con qué medios concretos, y cuándo piensa empezar a utilizarlos. Queremos tener fechas, queremos tener compromisos. Y este Gobierno es lo que ha sabido eludir, el comprometerse. Por eso, nosotros ahora no le vamos a dar la oportunidad de respaldar este pronunciamiento que no pasa de ser un pronuncia-

keriari buruz orain artean hartu dituen edo ziur asko epe motzera hartu ditzakeen ekintza-lanak babestu ditzagula dioen "Centristas Vascos" Taldeak salo egindako zuzenketa-eskea, alegia, ez dugu onartzen. Jaurlaritza honek, gurekiko, gai honetan inolako sinisgarritasunik txikienik ere ez duelako eta Jaurlaritza honek herribake gaian eta izuekintza gaian darabilen politikarekin bat ez gatozelako. Izuekintzari buruz ez dugu adierazpen gehiago nahi, izuekintzari buruz ez dugu asmo on gehiago nahi. Euzko Alderdi Jeltzaleak hori nahi duena ba dakigu; saloa horregatik babestu du. Eta, itxura denez, "Union de Centro Democrático" deritzanari ere hori atsegin zaiola ikusten dugu. Guri ez zaigu atsegin. Euskal Sozialistei ez zaigu atsegin, Euskal Sozialistek horri gutxiegia deritzagu. Eta gaur eztabaidaketa egin izan balitz, Jaurlaritzan dagoen alderdiari eta Jaurlaritzakideei Euskal Sozialistak hori baino askoz gehiago eskatuko geniekeen, ez bait gaude 1978garrenean, ez eta 1979garrenean ere, 1980garrenaren azkenetan baizik. Eta 1980garrenean, baketze-gaian eta izuekintza gaian, herri honetako Jaurlaritzari askoz gauza gehiago eskatu behar zaizkio eta isituki eskatu gainera. Eta hori da guk gaur Biltzar honetara ekarri nahi genuena eta hori Jaurlaritzak arrakastaz izkutatu duena.

Guk Jaurlaritza honengandik hitz emate zehatzak nahi genituen, itunketazko, berradiskidetzezko aukerez hitz egitea utzi dezala; bere politika zein den, arlo honetan bere xedeak zeintzu diren argiro zehaztu dezala eta egunak jar diezazkiela. Zera esan diezagula: "Hiru aste, hamabost egun, bi urte ibiliko naiz itunketan", zerbait esan dezala. Orain arte etengabeko iluntasun batetan ibili besterik ez du egiten. Hitz emate bat nahi dugu, norabide bat. Nahi genuen; eztabaidari ihes egiten jakin dute. Gauza gehiago ere nahi genituen. Gero zer egingo duen, borroka ireki hori noiz eta nola hasiko duen esan diezagun nahi dugu. "Jaurlaritzaren bide guztiekin", "bere baitan egon daitezen bide guztiekin", hortaz hitz egiten ez dakigula jarrai. Zein bide zehatzekin, eta hauek erabiltzen hastea noiz pentsatzen duen jakin nahi dugu. Egunak euki nahi ditugu, hitz emateak nahi ditugu. Eta horri, hitza emateari ihes egiten jakin du Jaurlaritzak. Horregatik guk ez diogu iritzi-emate bat besterik ez den iritzi emate hau babesteko aukerarik emango. Hitz emateak nahi ditugu eta ez dugu

miento más y que no pasa de ser una buena intención más. Queremos compromisos y no queremos más propósitos.

Queríamos preguntarle en concreto, queríamos preguntarle en concreto al Presidente, ¿hasta cuándo piensa seguir abordando triunfalistamente los problemas de este País? Como ha demostrado que sabe hacer durante las tres sesiones que ha durado este debate antes de que nos lo interrumpieran. Y queríamos preguntarle concreción y queríamos exigirle compromisos; y le queríamos exigir un compromiso fundamental a través de una pregunta que aquí todavía no se ha hecho en esta Cámara: ¿Cuántos muertos necesita el señor Garaikoetxea para tomar una decisión en relación con el terrorismo? Que nos diga cuántos. Queremos saberlo. ¿Uno? ¿Cinco? ¿Cuarenta muertos? Pues que nos diga si hay que esperar uno, cinco o cuarenta muertos, y entonces sabremos a qué atenernos con relación a este Gobierno.

El Sr. **PRESIDENTE:** Tiene la palabra el representante de Nacionalistas Vascos.

El Sr. **GUEVARA SALETA:** Señor Presidente, Señorías, nuestro Grupo entiende que la postura del Gobierno vasco, al que este Grupo Parlamentario apoya, quedó muy clara en cuanto al tema de la pacificación, desde el discurso de Gernika, de nombramiento del lehendakari. Está muy clara en el programa de gobierno, y todavía anteayer quedó, si cabe, mucho más clara y rotundamente expresada ante la satisfacción que mostraron quienes ahora parece ser que no lo ven igual.

Es cierto que nosotros presentamos una propuesta global en esta Cámara, en el mes de julio, en la que nos ratificamos, y es cierto que esta resolución no es global. Pero lo mismo que aquel día se aceptaron propuestas de resolución no globales, sino parciales, de adición a esa global que seguimos manteniendo, ésta nos parecía que era necesario apoyarla porque es perfectamente subsumible dentro de la postura que ha expresado este Gobierno desde la designación de su lehendakari. Y además, Señorías, esta propuesta de resolución tiene, a ojos de nuestro Grupo, un matiz fundamental. Por primera vez se dice en una resolución, o se pretendía decir, que esta Cámara apoya al Gobierno vasco en la obtención de los medios estatutarios para poder afrontar sus responsabilidades en temas tan delicados. Y como este Grupo no

gehiagorik nahi.

Zera galdetu nahi genion zehazki, galdetu nahi genion zehazki Lehendakariari: Herri honetako arazoak garaitsuki erabiltzen noiz arte jarraitzea pentsatzen duzu? Eten ziezaguten baino lehen eztabaida honek iraun dituen hiru batzarraldietan, egiten ba dakiela frogatu duenez. Eta zehaztasunak eskatu nahi genizkion eta hitz emateak eskatu nahi genizkion; eta funtzezko hitz emate bat eskatu nahi genion Biltzar honetan oraindik egin ez den galdera baten bidez: zenbat hildako behar ditu Garaikoetxea jaunak izukeriari buruz erabaki bat hartzeko? Esan diezagula zenbat. Jakin egin nahi dugu. Bat? Bost? Berrogei hildako? Bada, esan diezagula hildako bat, bost ala berrogei itxoin behar diren eta orduan jakingo dugu zeri atxeki Jaurlaritza honi buruz.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Euskal Ahaldun Abertzaleen ordezkariak du hitza.

**GEBARA SALETA** Jaunak: Lehendakari Jauna, Jaun-andreok, gure Taldearen ustez, Legebiltzar-Talde hau alde dagoeneko Jaurlaritzaren jarrera oso argi geratu zen bakeatzearen gaiari buruz, Lehendakaria aukeratzean izan dako Gernikako mintzaldiaz gero. Oso garbi dago jaurpide-egitarauan, eta oraindik herenegun, behar bada, orain berdin ikusten ez bide dutenek azaldu zuten atseginaren aurrean askoz ere garbi eta trinkoago adierazirik geratu zen.

Egia da Uztailean Biltzar honetan salo orokor bat aurkeztu genuela, eta horri eusten diogu eta egia da erabaki hau ez dela osokoa. Baina egun hartan, oraindik ere eusten diogun osokoari gehitzezko erabakitze-salo osoak ez baina zatikakoak onartuak izan ziren bezalaxe, honi eustea beharrezko zela iruditzen zitzaigun, Jaurlaritzak bere Lehendakaria izendatu zuenetik adierazi duen jarrera guztiz bere baitan har dezakeena delako. Eta gainera, Jaun-andreok, erabakitze-salo honek, gure Taldearen ikuspegiz, funtzezko ñabardura bat dauka. Erabaki batean lehenengo aldiz esaten da, edo esan nahi zen, Biltzar honek Eusko Jaurlaritzari, hain gai arriskutsuetan bere ardurei buru egin ahal izateko estatutuzko bideak lortzen lagunduko ziola. Eta Talde hau, lehenengo benetako ekintzak eskatuz, hitzaldiak eman eta gero Estatutoko esku-

caerá jamás en la incongruencia de dar mítines pidiendo hechos reales, y luego negarse a votar afirmativamente una resolución que pide el apoyo para la obtención de las transferencias del Estatuto, por eso, porque nunca caeremos en esta incongruencia ni vendremos a dar mítines, por eso hemos votado que sí, Señorías.

El Sr. **VIANA SANTA CRUZ:** Para una cuestión de orden.

El Sr. **PRESIDENTE:** Señor Viana.

El Sr. **VIANA SANTA CRUZ:** Bueno, este Grupo entendía, y por eso no ha solicitado intervención para la explicación de voto, que la iniciativa suya en el tema de la presentación de esa propuesta de resolución era suficiente. Sin embargo, entendiendo que la explicación del portavoz del Grupo Socialista para explicar su voto la ha sometido a un ataque concreto y preciso sobre esa propuesta de resolución del Grupo Centrista Vasco, yo someto a la consideración de esta Presidencia si entiende que este Grupo no tiene derecho a intervenir en turno de alusiones.

El Sr. **PRESIDENTE:** No ha lugar; no ha lugar, señor Viana.

El Sr. **VIANA SANTA CRUZ:** De acuerdo.

El Sr. **PRESIDENTE:** Pasamos seguidamente a la votación de la segunda propuesta de resolución. Procédase a la lectura.

El Sr. **SECRETARIO PRIMERO** (Zaldúa Arbiza):

"Grupo Parlamentario Centristas Vas"cos, a la Mesa del Parlamento.

"El Grupo Parlamentario Centristas "Vascos presenta a la Mesa del Parla"mento la siguiente propuesta de reso"lución.

"La autonomía del País Vasco se ci"mentará en el absoluto respeto de la "autonomía de sus Territorios Históri"cos y de sus respectivas instituciones

raketak lortzeko laguntza eskatzen duen erabakiari baiezkoa emateari uko egitearen erabateko zentzugabekerian ez bait da eroriko, horregatik, zentzugabekeria horretan inoiz eroriko ez garelako, horregatik eman dugu baiezko botoa, Jaun-andreok.

**VIANA SANTA CRUZ** Jaunak: Erari buruzko batetarako.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Viana jauna.

**VIANA SANTA CRUZ** Jaunak: Beno, Talde honen ustetan, eta horregatik ez du boto-adierazpen txandarako aukerarik eskatu, erabakitze-salo horren aurkezpenaren gaian bere arioa nahikoa zen. Hala ere, nere ustez, Talde Sozialistako Taldeburuak, bere botoa argitzeko adierazpena Euskal Zentrista Taldearen erabakitze-saloarekiko eraso zehatz eta mehatz bihurtu du, Talde honek aipamen txanda eskuhartzeko eskubiderik ba ote duen ala ezkoa Lehendakaritza honen esku uzten dut.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Ez da bidezko; ez da bidezko, Viana jauna.

**VIANA SANTA CRUZ** Jaunak: Ondo.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Ondoren bigarren erabakitze saloa jarriko dugu bozketara. Irakur bedi.

**LEHEN-IDAZKARI** Jaunak: (Zaldua Arbiza):

"Centristas Vascos Legebiltzar-Tal"deak, Legebiltzarreko Mahaiari.

"Centristas Vascos Legebiltzar-Tal"deak honako erabakitze-saloa aurkez"ten dio Legebiltzarreko Mahaiari.

"Euskal Herriaren Autonomia, bere "Kondaira-Lurraldeen eta hauei dagoz"kien burujabetzazko iraskundeen auto"nomiarekiko erabateko begirunean oi-

"de autogobierno. En este sentido, la "política del Gobierno vasco debe dirigirse también a la potenciación de la "personalidad de los Territorios Históricos.

"Vitoria-Gasteiz, 17 de octubre de "1980.

"El portavoz. Firmado, Jesús María "de Viana Santa Cruz."

Efectuada la votación, el resultado fue el siguiente: votos emitidos, 44; a favor, 29; en contra, siete; abstenciones, ocho.

El Sr. **PRESIDENTE:** Queda, por tanto, aprobada la propuesta de resolución. Se abre el turno de explicación de voto. (Pausa.)

El señor Lertxundi tiene la palabra.

El Sr. **LERTXUNDI BARAÑANO:** En un tema que fue objeto de discusión larga en la elaboración del Estatuto, yo creo que se introduce una modificación que no está contemplada en el mismo, y que, en este sentido, lo que dice en el artículo 3º y en el artículo 37 choca frontalmente con esta propuesta de resolución votada y aprobada en la Cámara. Es decir, no hay ningún tipo de relación entre los territorios y el Gobierno vasco, ni de potenciación ni de no potenciación, ni de discriminación o no discriminación. Las relaciones únicamente establecidas son, en el artículo 3º, que los territorios podrán ellos mismos por propia iniciativa, mantener, regular, etcétera, su régimen privativo. Y en el artículo 37, las relaciones son con el Parlamento Vasco no con el Gobierno vasco. Yo creo que se ha votado una cosa que está absolutamente fuera del contexto del Estatuto. Y por eso, el voto en contra, por coherencia.

El Sr. **PRESIDENTE:** El señor Aróstegui tiene la palabra.

El Sr. **AROSTEGUI ZUBIAURRE:** Mi Grupo estaba dispuesto a votar afirmativamente el texto original, porque nosotros entendemos que la potenciación de los Territorios Históricos es la esencia de nuestro Estatuto, el espíritu de nuestro Estatuto. Y porque evidentemente coincide en es

"narrituko da. Alde honetatik, Eusko "Jaurlaritzaren politikak, Kondaira-Lu "rraldeen nortasuna ahalmentzera jo behar du.

"Gasteiz, 1980ko Urriak 17.

"Taldeburuak. Jesús María de Viana "Santa Cruz-ek izenpetua".

Boto-emanketa egin ondoren, honako hau izan zen ondorioa: emandako botoak, 44; alde, 29; aurka, zazpi; botorik eman gabeak, zortzi.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Onartu egiten da, beraz, erabakitze-saloa. Boto-adierazpen txanda irekitzen da. (Isilaldia.)

Lertxundi jaunak du hitza.

**LERTXUNDI BARAÑANO** Jaunak: Estatutoa antolatzerakoan eztabaida luzea ukan zuen gai batetan, bertan jasotzen ez den aldakuntza bat sartzen dela uste dut, eta, alde honetatik, 3.atalean eta 37. atalean esaten duena Biltzarrean bototara jarri eta onartu den erabakitze-salo honekin aurrez aurre topo egiten du. Hau da, ez dago inolako harremanik lurralde eta Eusko Jaurlaritzaren artean, ez eta ahalmentze eta ez ahalmentzekorik ere, ez eta baztertze eta baztertzekorik ere. Erabakitako harreman bakarrak hauek dira: 3. atalean, lurraldeek, beraiek, bere kabuz, bere jaurpide bereziari eutsi, hori arautu etabar egin ahal izango dutela, eta 37. atalean, harremanak Eusko Legebiltzarrerekin dira, ez Eusko Jaurlaritzarekin. Nere ustez, Estatutoaren ingurutik guztiz kanpo dagoen zerbait jarri da bototara. Eta horregatik, barne-egokitasunagatik, aurkako gure botoa.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Arostegi jaunak du hitza.

**AROSTEGI ZUBIAURRE** Jaunak: Nire Taldea prest zegoen lehen-idazkiari baiezkoa emateko, gure ustez Kondaira-Lurraldeen ahalmenketa gure Estatutoaren funtsa delako, gure Estatutoaren muina delako. Eta, dudarik gabe, era honetan, gure jarrerekin bat datorrelako, baita honi buruz Jaurlari-

te sentido con nuestros planteamientos, incluso con alguna pregunta concreta que habíamos hecho a este respecto al Gobierno, sin obtener contestación. Pero las modificaciones que se han hecho me hacen sospechar, y perdone que hable así, me hacen suponer que hay una rebaja, una rebaja incomprensible en el tema. Estaba claramente explicitado, y suprimir la palabra "reforzamiento" y meter un "también" ahí no tenía sentido, salvo que se quiera reforzar el dejar una puerta abierta a planteamientos sospechosos. En este sentido, nosotros no hemos podido aceptar que un texto, que primitivamente era para nosotros magnífico, se modifique de una manera sorpresiva y pueda implicar un cambio en los criterios que estábamos sosteniendo. Por eso nos hemos abstenido.

El Sr. **PRESIDENTE:** Tiene la palabra el señor Viana.

El Sr. **VIANA SANTA CRUZ:** Creo, señor Presidente, que la explicación de voto va en función del orden en que es solicitada esta explicación de voto.

El Sr. **PRESIDENTE:** No, no.

El Sr. **VIANA SANTA CRUZ:** ¿Ah, no?

El Sr. **PRESIDENTE:** No, no. Es inverso. ¿Va a hacer uso del turno?

El Sr. **VIANA SANTA CRUZ:** Explicación de voto.

El Sr. **PRESIDENTE:** Vale.

El Sr. **VIANA SANTA CRUZ:** Nosotros hemos presentado esa propuesta que ha sido sometida a votación, y hemos aceptado las puntualizaciones de acercamiento que se nos han hecho por parte del Grupo de Nacionalistas Vascos, porque entendemos y deseamos seguir siendo coherentes con lo que hemos venido diciendo desde el principio de este debate. Es decir, que creo que es el momento de aunar los máximos esfuerzos, los máximos esfuerzos, por tratar de que entre todos salgamos adelante dentro de este gravísimo problema al que nos enfrentamos, como es la situación del País Vasco. Desde esa base, desde esa base, va

tzari erantzunik lortu gabe egin genion galdera zehatz batekin ere. Baina egin diren aldakuntzek, gaian gutxitze bat, gutxitze ulertezin bat dagoeneko susmoa, eta barka horrela hitz egiteagatik, egin erazten didate. Argiro zehazturik zegoen eta, "berrindartze" hitza kendu eta hor "ere" bat sartzeak ez zuen itxurarik jarrera susmagarriei atea zabalik uztea berrindartu nahi ez bada behintzat. Alde honetatik, haseran guretzat guztiz ona zen testua harrigarriro aldatu eta eusten ari ginen erizpideetan aldakuntza ekarri dezakeenakorik ez dugu onartu ahal izan. Horregatik ez dugu botorik eman.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Viana jaunak du hitza.

**VIANA SANTA CRUZ** Jaunak: Nere ustez, Lehendakari jauna, botoaren adierazpena eskatzen deneko hurrenkerari jarraiki doa.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Ez, ez.

**VIANA SANTA CRUZ** Jaunak: A, ez?

**LEHENDAKARI** Jaunak: Ez, ez. Alderantziz da. Txanda erabili behar al duzu?

**VIANA SANTA CRUZ** Jaunak: Boto-adierazpena.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Ongi.

**VIANA SANTA CRUZ** Jaunak: Guk, bototara jarri den Salo hau aurkeztearen eta Euskal Ahaldun Abertzaleak Taldeak egin dizkigun hurbiltzezko zehaztapenak onartzearen arrazoia honako hau da: eztabaida honen haseratik esaten aritu garena pentsatzen dugulako eta horri eusten jarraitu nahi dugulako. Hau da, aurre egiten ari gatzaizkion arazo larri larri honetan, hots, Euskal Herriaren egoera, denon artean aurrera atera gaitezeneko ahalegin guztiak orobatzeko unea dela uste dut. Oinarri horretatik, oinarri horretatik onartuko dugu behar haina jorratu gaitzatenekoa, une honetatik jakinarazten bait dugu, egin ditu-

mos a admitir que se nos critique todo lo necesario, porque anunciamos desde ahora, creo que lo he dado a entender en las diferentes intervenciones, que vamos a ser oposición del Gobierno. Pero en absoluto tenemos la más mínima intención de ponerle a este Gobierno en un callejón sin salida, porque el pueblo lo que demanda es una salida a esta situación. Y desde ese principio de salida, el Gobierno va a tener nuestra colaboración, el Gobierno va a tener nuestro apoyo, porque creo que el pueblo está esperando que por encima de intereses particulares, por encima de querer se regalar los oídos, y creo que decía ayer textualmente, por encima de querer regalar unos oídos que están deseando oír cantar las cuarenta, luego, en cambio se desinteresen en la continuación de la partida. Y los Centristas Vascos, cantemos o no las cuarenta, queremos ser responsables con el resto de la partida. La partida es muy seria. Entendemos que en absoluto merma la enmienda de acercamiento, en absoluto merma los derechos de los derechos históricos, porque aquí hay un Parlamento Vasco. Y desconocer que además de los Territorios Históricos hay una Comunidad Autónoma es no ser coherente con la propia posición de figurar en un Parlamento que, con sólo la presencia, admite ya la existencia de esa Comunidad.

Y en cuanto al fortalecimiento, indudablemente, los Centristas Vascos, en aras también de esa unión de esfuerzos, hemos sido perfectamente sensibles a la posición de determinados Territorios Históricos que entienden no se puede hablar de refortalecimientos mientras no tengan reinstaurados sus propios derechos históricos. Y como entendíamos que eso era plenamente lícito, como entendíamos que eso era plenamente constuctivo, sin creer -ni aceptar, por supuesto- que había la más mínima merma en la política de acercamiento, hemos hecho una política constructiva, como lo hemos hecho en la enmienda primera, pero no hemos tenido ni vamos a tener ningún rubor para apoyar que este Gobierno pueda transformar en hechos reales y ciertos el salir de este atolladero. Y si da la casualidad de que estamos todos hartos de enjuiciar las cosas, tampoco vamos a conseguir que este Gobierno pueda hacer frente a problemas muy serios si no le apoyamos a la hora de conseguir las máximas transferencias para esta institución. Nada más.

El Sr. **PRESIDENTE**: Tiene la palabra el representante de Socialistas Vascos.

dan mintzaldietan ulertarazi dudala uste dut eta, Jaurlaritzaren aurkari izanen garela. Baina ez dugu inola ere Jaurlaritza hau irtenbiderik gabe uzteko asmorik txikienik ere, herriak eskatzen duena egoera honi irtenbide bat ematea bait da. Eta hortik, irtenbidearen abiagune horretatik, eukiko du Jaurlaritzak gure laguntza, eukiko du Jaurlaritzak gure babesa, herria zera itxoiten ari bait da: norbere onurak baino, bere entzumenak gozatzea baino, eta atzo hitzez hitz esaten nuela uste dut, kristorenak entzuteko gogo biziagoz dago, bere entzumenak nahiz eta gero, partidaren jarraipenaz batere ez arduratu. Eta Euskal Zentristak, kristorenak esan edo ez esan, partidaren gainontzekoarekin arduratsu izan nahi dugu. Partida oso serioa da. Gure ustez, hurbiltzezko zuzenketa-eskeak ez ditu inola ere, kondaira-eskubideen eskubideak gutxitzen, hemen Eusko Legebiltzar bat bai bait dago. Eta Kondaira-Lurraldeez gainera Elkarte Autonomiadun bat dagoela ez ikustea, Legebiltzar batean egotearen jarrera berarekiko atxekitasunik eza da, hor egote hutsak elkarte hori ba dela esan nahi bait du.

Eta indartzeari buruz, durarik gabe, "Centristas Vascos" garenok, halaber, ahaleginen batasun horri begira, bere kondaira-eskubideak berjarriak izan arte berrindartzeaz ez dagoela hitz egiterik pentsatzen duten zenbait Kondaira-Lurraldeen jarrerarekin guztiz sentibera izan gara. Eta hori guztiz zilegi zela pentsatzen genuenez, hori guztiz eraikitzaile zela pentsatzen genuenez, hurbiltzezko politikan gutxitzez txikienik zegoenik pentsatu gabe -eta onartu gabe, noski- politika eraikitzaile bat egin dugu, lehen-zuzenketa-eskean, egin dugun bezala, baina Jaurlaritza honek lokazti honetatik ateratzea benetako eta egiazko ekintza bihurtu ahal dezanari eusteko ez dugu inolako lotsarik izan ez eta izango ere. Gauzak epaitzeaz denok aspertuta gaudeneko ezustea gertatzen bada, iraskunde honentzako ahalik eta eskuraketa gehienak lortzerakoan laguntzarik ematen ez badiogu, ez dugu Jaurlaritza honek oso arazo serioei aurre egin ahal diezaienik ere lortuko. Besterik ez.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Euskal Sozialistak Taldeko ordezkariak du hitza.

El Sr. **AGUIRIANO FORNIES:** Señor Presidente, señoras y señores Diputados, los Socialistas Vascos nos hemos abstenido en el voto de esta moción por las razones generales que ya ha explicado mi compañero Ricardo García Damborenea, y por una razón particular inherente al tipo de mociones. Faltaría más, señores Centristas y señores Nacionalistas Vascos que este Parlamento se pida a sí mismo, y pida al Gobierno, que respete el Estatuto.

El primer párrafo, para nosotros, no tiene el menor sentido, la menor originalidad y no añade nada nuevo a lo que ya está prescrito en el Estatuto. El segundo párrafo es pedir al Gobierno que potencie también a los Territorios Históricos, cuando ese tema de la potenciación de los Territorios Históricos depende de una ley que el Gobierno o una proposición de ley que un Grupo Parlamentario presenten a este Parlamento. Y este Parlamento decidirá. En tercer lugar, los Territorios Históricos, señores Centristas y Nacionalistas Vascos, en la historia de nuestro pueblo no han sido siempre unas provincias, puesto que en Vizcaya las Encartaciones y el Duranguesado tuvieron sus propias Juntas Generales, y en Alava el valle de Ayala. Y en su día veremos, cuando la proposición de ley o el proyecto de ley venga sobre el Gobierno, qué tipo de Territorios Históricos habrá que potenciar. Y en cuarto lugar, porque reducir tres días del debate a cuestiones puntuales, a cuestiones de pasada, no sé si calificarlo de burla o de broma.

El Sr. **PRESIDENTE:** Tiene la palabra el representante de Nacionalistas Vascos.

El Sr. **GUEVARA SALETA:** Señor Presidente, Señorías, muy brevemente para explicar nuestro voto afirmativo.

Efectivamente, proponíamos la supresión de la palabra "refortalecimiento", porque nos parecía absolutamente inadecuada, por no decir un calificativo quizás más fuerte, pero pensábamos que hay una advertencia en la formulación de la propuesta, y así ha quedado de manifiesto por el portavoz centrista, en que concretamente en dos territorios por lo menos no se puede hablar de refortalecer, sino que hay que empezar por hablar de recuperar lo que por un decreto de guerra se despojó.

Hemos introducido la palabra "también" en el segundo párrafo, porque nosotros somos nacionalistas, y nosotros aspiramos a

**AGIRIANO FORNIES** Jaunak: Lehendakari jauna, Ahaldun Jaun-andreok, aitzi-adierazpen honetan sozialistok ez dugu botorik eman, Ricardo Garzia Danborenea nire kideak adierazi dituen guztizko arrazoiegatik eta aitzi-adierazpen motari datxekon arrazoi berezi bategatik. Horixe bakarrik falta zitzaigun, Zentrista jaunak eta Euskal Ahaldun Abertzale jaunok Legebiltzar honek bere buruari eta Jaurlaritzari Estatutoa errespeta dezan eskatzea.

Lehen-idaz-zatiak guretzat ez du zentzu txikienik, berrikuntza txikienik ere eta ez dio Estatutoan dagoeneko aurridatzirik dagoenari ezer gehitzen. Bigarren idaz-zatia Jaurlaritzari Kondaira-Lurraldeak ere ahalmentzeko eskatzeko da, Kondaira-Lurraldeak ahalmentzezko gai hori, Legebiltzar honi Jaurlaritzak aurkeztu diezaion Lege baten edo Legebiltzar-Talde batek aurkeztu diezaion lege-salo baten menpe dagolarik. Eta Legebiltzar honek erabakiko du. Hirugarren, Kondaira-Lurraldeak, Zentristak eta Euskal Ahaldun Abertzale jaunak, gure herriaren historian ez dira beti probintziak izan, Bizkaian Enkartazioek eta Durango aldeak bere Batzorde Nagusiak ukan bait zituzten, eta Araban Ayala haranak. Eta bere egunean ikusiko dugu, lege-saloa edo lege-egitasmoa Jaurlaritzarengana etor dadinean, zernolako Kondaira-Lurralde ahalmendu beharko diren. Eta laugarren, eztabaidako hiru egun xehetasunezko arazotara, axaleko arazotara murrizteari ez bait dakit iseka edo broma zer deitu.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Euskal Ahaldun Abertzaleen ordezkariak du hitza.

**GEBARA SALETA** Jaunak: Lehendakari jauna, Jaun-andreok, oso laburki gure baiezko botoa argitzeko.

Bai, "berrindartze" hitza kentzearen aldeko saloa egiten genuen, guztiz desegoki iruditzen zitzaigulako, agian beste hitz gogorragoa ez esateagatik, baina saloaren antolapenean gaztigu bat zegoela pentsatzen genuen, eta honela adierazi du "Centristas" taldeburuak alegia, bi lurraldetan gutxienez ez dagoela berrindartzeaz hitz egiterik, baizik eta guda-dekreto batez ebatsi zena berreskuratzeaz hitz egitetik hasi behar da.

Abertzaleak garelako eta Euskadi eraikitzeko xedea dugulako sartu dugu "ere" hitza bigarren idatz-zatian. Estatutoak dioe-

construir Euskadi. Sabemos que Euskadi se tiene que hacer, como dice el Estatuto y como se ha venido diciendo desde atrás incluso en los proyectos anteriores, desde el respeto a la personalidad de los Territorios Históricos vascos. Pero somos nacionalistas y, por tanto, queríamos introducir de forma clara que la política del Gobierno se dirigirá también a la potenciación de los Territorios Históricos, pero que el objetivo prioritario de los nacionalistas es construir Euskadi.

Por supuesto, hemos votado que sí. Por supuesto que cuando se habla de "la política del Gobierno vasco debe dirigirse", no estamos vulnerando la democracia. Cuando nosotros votamos afirmativamente esto, damos por supuesto que esa política del Gobierno, como cualquier otra, pasará por el control de esta Cámara y, por tanto, nuestro voto hay que entenderlo en ese sentido.

Y, finalmente, nuestro voto es coherente con actuaciones anteriores porque indudablemente esta propuesta de resolución es parcial, muy parcial y muy puntual dentro de todo un debate, pero yo recuerdo que en esta Cámara ha habido quien ha presentado como única propuesta de resolución en un tema de pacificación, una de unas cuantas líneas que se refería a apoyar la postura -y que este partido votó afirmativamente- de determinada persona en relación con el impuesto revolucionario. Entonces, si aquello se voto afirmativamente, lo que no entendemos es que pocas semanas después se venga a justificar un voto diciendo que parece una burla presentar propuestas puntuales en temas globales. Nosotros pensamos que de sabios es mudar de opinión, aunque a veces tengamos la opinión de que ciertos cambios de opinión, valga la redundancia, son a peor. Nada más.

El Sr. **PRESIDENTE**: Pasamos seguidamente a la tercera propuesta de resolución. Léase, por favor.

El Sr. **SECRETARIO PRIMERO** (Zaldúa Arbiza):

"A la Mesa del Parlamento Vasco.

"Alianza Popular del País Vasco, de "conformidad con las normas que re- "gulan la celebración del debate parla- "mentario sobre el programa del Go- "bierno vasco, somete a la Mesa del "Parlamento la siguiente propuesta de

nez eta lehendik, baita lehenagoko egitasmoetan ere, esan izan denez ba dakigu Euskadi euskal Kondaira-Lurraldeekiko begirunetik abiatuta egin behar dela. Baina abertzaleak gara eta, beraz, argiro sartu nahi genuen Jaurlaritzaren politika Kondaira-Lurraldeak ahalmentzera ere abiatuko dela, baina abertzaleon lehentasunezko xedea Euskadi eraikitzea dela.

Baiezko botoa eman dugu, noski. "Eusko Jaurlaritzaren politika gidatu behar da" esaten denean, ez gara demokrazia urratzen ari, noski. Guk honi baiezko botoa ematen diogunean, jakintzat jotzen dugu Jaurlaritzaren politika hori, beste edozein politika bezala Biltzar honen zaingopetik igaroko dela eta, beraz, gure botoa era horretan ulertu behar da.

Eta, azkenik, gure botoak aurreko ekintzekin ba du atxekitasunik, erabakitze-salo hau, dudarik gabe, zatikakoa bait da, oso zatikakoa eta oso xehekatua eztabaida oso baten barruan, baina gogoratzen naiz Biltzar honetan norbaitek bakeatzearen gaian erabakitze-salo bakar gisa zera aurkeztu duela: zerga iraultzaileari buruz pertsona batek duen jarrera -guk baiezko botoa eman geniona- babestezko zenbait lerrotako salo bat. Orduan, hari baiezko botoa ematen bazaio, ez dugu ulertzen handik aste gutxitara boto bat zera esanez zuritzea: gai orokorretan salo xeheak aurkezteak iseka dirudiela. Gure ustez, jakintsuena da eritziz aldatzea, nahiz eta, zilegi bekit errepikapena, batzutan zenbait eritzi-aldaketa okerrerako direneko eritzia ukan. Besterik ez.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Ondoren hirugarren erabakitze-salora igarotzen gara. Irakur bedi, mesedez.

**LEHEN-IDAZKARI** Jaunak (Zaldua Arbiza):

"Eusko Legebiltzarreko Mahaiari.

"Euskal Herriko Alianza Popularrek, "Eusko Jaurlaritzaren Egitamua Eusko "Legebiltzarrean eztabaidatzeko dauden "arauen ariora, honako erabaki-salo hau "egiten dio Legebiltzarreko Mahaiari.

"resolución:

"Es necesario un pronunciamiento "claro del Gobierno vasco sobre el contenido que da a los conceptos de "soberanía" y "nación vasca", sobre su "sentimiento de la vinculación del País "Vasco y España, sobre la indisoluble "unidad de la nación y la solidaridad "entre todos sus ciudadanos y regiones.

"Es necesaria también una declaración de respeto a las peculiaridades "lingüísticas y culturales de los habitantes del País Vasco procedentes de otros "lugares de España, y el compromiso "del Gobierno vasco de no agresión a "dichas peculiaridades.

"El Gobierno vasco, debe, dentro del "texto de su programa, pronunciarse "igualmente sobre el terrorismo, con una "condena frontal, directa y sin complejos de la organización ETA, marginando cualquier referencia a posibles medidas de gracia.

"Vitoria, 17 de octubre de 1980.

"Firmado, portavoz Grupo Mixto."

Efectuada la votación, el resultado fue el siguiente: votos emitidos:, 45; a favor, dos; en contra, 30; abstenciones, 13.

El Sr. **PRESIDENTE**: Queda, por tanto, rechazada. Se abre el turno de explicación de voto. (Pausa.)

El señor Aróstegui tiene la palabra.

El Sr. **AROSTEGUI ZUBIAURRE**: Señor Presidente, señoras y señores Diputados, verdaderamente triste y preocupado voy a explicar nuestro voto. Triste y preocupado porque creo que una vez más esta Cámara, esta institución del pueblo vasco ha dado un severo traspiés en la solución de los problemas que aquejan a nuestro pueblo. Creo que la responsabilidad histórica que a todos los que han votado a favor de esta propuesta les incumbe, se les exigirá, y les será exigida algún día por la historia. Pero, realmente, creo que aquí hay que hablar menos, tengo que hablar menos de la explicación de mi voto, y más tienen que hablar otros de por qué no votan a favor de definir la vinculación del País Vasco y España; por qué no votan a

"Burujabetasuna" eta "Euskal Nazioa" hitzek zer esan nahi dutenaz "adierazpen garbi bat egin beharra dauka Eusko Jaurlaritzak, eta baita Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko "atxekitasunaz, Nazioaren hautsiezineko "batasunaz eta bertako herritar eta lurralde guztien arteko elkartasunaz ere.

"Euskal Herrian bizi eta Espainiako "beste lurraldeetatik etorritako hizkuntza eta kulturazko bereizitasunarekiko "begirunearen aldarrikapen bat ere beharrezko da, Eusko Jaurlaritzak bereizitasun horiei erasoko ez dieneko hitz "ematea.

"Eusko Jaurlaritzak bere Egitamuaren barruan, izuekintzari buruzko jarrera ere agertu behar du, ETA erakundea argi eta garbi, artez eta lotsarik "gabe gaitzetsiz, eta agiango ezein barkapen-neurriren aipamena kenduz.

"Gasteiz, 1980ko Urriak 17.

"Izenpetua, Askotariko Taldeburua".

Boto-emanketa egin ondoren, hau izan zen ondorioa; emandako botoak, 45, bi; aurka, 30; botorik eman gabeak, 13.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Onartzeke geratzen da, beraz. Boto adierazpen txanda irekitzen da. (Isilaldia.)

Arostegi jaunak du hitza.

**AROSTEGI ZUBIAURRE** Jaunak: Lehendakari jauna, Ahaldun Jaun-andreok, benetan triste eta kezkati noa gure botoa adierazteera. Triste eta kezkati, Biltzar honek, Euskal Herriaren erakunde honek, gure herriari erasotzen dioten arazoen konponbidean berriro huts egite garratz bat egin duela uste dudalako. Salo honen alde bozkatu duten guztiei doakien kondairazko ardura eskatu egingo zaiela, egunen batean kondairak eskatu egingo diela uste dut. Baina, egiazki, hemen gutxiago hitz egin behar dela, nire botoaren argitzeaz gutxiago hitz egin behar dudala uste dut, eta gehiago hitz egin behar beste batzuk Euskal Herria eta Espainiaren arteko harremana mugatzearen alde zergatik bozkatzen ez dutenaz, hemen jaio ez diren eta gurekin bizi direnen

favor de respetar las peculiaridades lingüísticas y culturales de quienes no han nacido aquí y conviven con nosotros; por qué no han votado a favor de condenar frontal y directamente a la organización terrorista ETA. Esto es lo que tienen que explicar los demás, pero no solamente a esta Cámara, sino al pueblo y a la historia. Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE:** El señor Viana tiene la palabra.

El Sr. **VIANA SANTA CRUZ:** Yo, aunque sea plagiando, diría que qué tristeza y decepción me producen aquéllos que se creen poseedores de la única verdad.

El portavoz, en este caso a mí me corresponde, del Grupo Centristas Vascos debe decir que lo que no ha querido es caer en una trampa en la que de alguna manera ya tiene la suficiente experiencia parlamentaria. Cuando se quiere alguna colaboración de voto, lo que hay que hacer es presentar unas propuestas de resolución que no intenten poner zancadillas a quienes se quiere que voten afirmativamente. Nosotros estamos totalmente de acuerdo con la clarificación de los temas "soberanía", "nación", "la unidad de España" y demás, pero creo que, desde el propio convencimiento y desde el propio desarrollo de nuestra actividad política, es algo que no se hace necesario que repitamos tan constantemente. Estamos totalmente de acuerdo y, quizás con una resolución que sólo abarcara este particular, hubiera encontrado el apoyo decidido del Grupo de Centristas Vascos.

Sin embargo, tenemos que ser puramente coherentes con nuestra actuación en el Parlamento, intento en el que procuraremos seguir sucesivamente. Y hemos dicho ayer, creo que anteayer y hoy mismo al Consejero de Educación que teníamos hondas preocupaciones, pero que, sin embargo esas preocupaciones se habían desvanecido tras las explicaciones plenamente claras y rotundas que el Consejero de Educación había dado a este Parlamento. Y como seguimos en la línea de querer ser una oposición respetable, una oposición que desde su lugar y plataforma de oposición, que decíamos en la primera respuesta al programa del Gobierno, no lleve precisamente a un callejón sin salida, si para nosotros han quedado satisfechas esas preocupaciones, le decíamos al final al Consejero de Educación que seguiremos su actuación para ver si

hizkuntza eta kulturazko bereizitasunekiko begirunearen alde zergatik bozkatzen ez duten; ETA izuekintzazko erakundea aurrez eta zuzenki gaitzestearen alde zergatik bozkatu ez dutenaz. Hau da gainontzekoek argitu behar digutena, baina ez Legebiltzar honi bakarrik, baita herriari eta historiari ere. Eskerrik asko.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Viana jaunak du hitzak.

**VIANA SANTA CRUZ** Jaunak: Nik, nahiz eta besteek esana apiztu, egia bakarraren jabe direla uste duten haiek bai tristura eta etsipena sortzen didatela esango nuke.

"Centristas Vascos" Taldeko taldeburuak, kasu honetan niri dagokit, zera esan behar du: tranpa batetan erortzerik ez duela nahi izan, hor, nolapait ere, nahiko Legebiltzar-haztura bai bait dauka. Boto-laguntzaren bat nahi denean, baiezkoa eman dezaten, nahi den haiei ankatrabak jartzera jo ez dezaten erabakitze-saloak aurkeztu egin behar dira. Gu guztiz bat gaude "burujabetasuna", "nazioa", "Espainiaren batasuna" eta gainontzekoen argitzearekin, baina nire sinestetik eta gure politika-ekintzaren egiterapenetik beretik begiratuta, hainbeste errepikatzen ibili behar ez dugun zerbait dela uste dut. Guztiz bat gaude eta, agian puntu hau bakarrik har lezan erabaki batekin "Centristas Vascos" Taldearen benetako laguntza aurkituko zukeen.

Hala ere, atxekitasun garbia ukan behar dugu gure Legebiltzarreango jokabidearekin, etengabe jarraitzen ahaleginduko garen eko saio horrekiko. Eta atzo, ustez herenegun ega gaur bertan ere, esan diogu Hezkuntza-Sailburuari kezka sakonak genituela, baina, hala ere, kezka horiek ankaz gora joan zirela hezkuntza-Sailburuak Legebiltzar honi emandako argipide guztiz argi eta trinkoen ondoren. Eta aurkarigo ardurátsu, Jaurlaritzaren egitarauari eman genion lehenengo erantzunean esaten genuenez, kezkak guretzat aseta geratu badira, bere tokitik eta aurkarigo mailatik irteerarik gabeko kale batetara eraman ez dezan aurkarigo izan nahirik jarraitzen bait dugu, azkenean Hezkuntza-Sailburuari esaten genionez, ekintzak egiaren hariko direnentz ikusteko haren jokabideari jarraituko diogu. Baina Hezkuntza-Sailburuak behin eta be-

los hechos responden a las verdades. Pero una declaración más de lo que ha sido reiteradamente expuesto por el Consejero de Educación no se nos hace en absoluto necesaria.

Y en tercer lugar nos preocupa el tema del terrorismo, nos preocupa terriblemente. Tan terriblemente que hemos hecho una propuesta de resolución exclusiva sobre este tema en la que no sólo hemos pedido un posicionamiento del Gobierno, sino que además, desde nuestra posición de Centristas Vascos y pertenecientes al partido que a nivel del Estado ostenta el Gobierno español, hemos prestado nuestro decidido apoyo a que reciba el máximo de transferencias que precisa, a través del Estatuto, para que se tomen todas las medidas que el terrorismo necesita. Porque queremos contra el terrorismo, eficacia y no condenas viscerales, porque volveríamos a cantar otra vez las cuarenta y nosotros queremos seguir jugando la partida.

El Sr. **PRESIDENTE:** Tiene la palabra el representante de Socialistas Vascos.

El Sr. **GARCIA DAMBORENEA:** Nuestro Grupo se ha abstenido en esta votación, bueno, evidentemente no por el contenido de los principios que recogía por lo que se puede referir a la soberanía y a la nación vasca, o a la vinculación del País Vasco y España, o sobre la indisoluble unidad de la nación, la solidaridad, etcétera, etcétera; evidentemente, por otras razones. Hay cuestiones que nosotros estaríamos obviamente dispuestos a respaldar, señor Aróstegui, en todo momento; hay principios con los que evidentemente estamos de acuerdo, pero éste no es el tema que aquí nos ocupa. Estos son aspectos puntuales, y yo insisto: nosotros aquí a lo que habíamos venido, a lo que pensábamos que veníamos era a debatir el programa del Gobierno. Evidentemente, esto no tiene nada que ver con el programa del Gobierno y, por lo tanto, no hemos querido entrar en esa cuestión.

Pero hay otras razones también, y es que a mi Grupo le tiene sin cuidado lo que pueda opinar el Gobierno sobre estos temas a nivel legislativo o a nivel práctico, usted ya me entiende. El Gobierno es muy dueño de tener sus opiniones siempre que no trate de imponerlas. Y estos temas, estas cuestiones y estos principios están ya recogidos en la Constitución española. Y mientras nadie cuestione la Constitución

rriz aurkeztua izan denaren beste aitorpen bat gehiago ez zaigu inola ere beharrezko egiten.

